



Larreak erretzeko baimenak
Martxoaren 12ra arte
eska daitezke
→ 38

Inauteriak

Herriz herriko mozorro besta

BERA → 11

Greba bertan behera utzi eta lanean hasi dira Funveran

TELEBISTA → 24

Mugarik gabeko telebista kanpaina ETB ikusteko

LEITZA → 42

Santa Ageda bezpera otsailaren 4an

BAZTAN → 45

Karriken izendegia berritzen ari dira

Kerik gabe negozioa airean ikusten dute ostalariek

Europako bertze hainbat estatutan bezala, toki publiko itxietan erretzea debekatuko duen legea indarrean paratu nahi du Espainiako Gobernuak urte erdialderako. Baina neurria ez da ostalarien gustukoa, euren kalterako izanen dela ziur baitaude.

ERREPORTAJEA → 4-5

ELKARRIZKETA → 3

Krisiaren eraginaren beldur, baina sagardotegiak zabalik



Lesakako Linddurrenborda sagardotegian hasi da aurtengo sagardotegi denboraldia. Ez da sagar urtea izan eta beraz, kanpotik ekarri behar izan dute. Guzira 20.000 litro sagardo egin dituzte.

KIROLA → 52

Iker Mariezkurrena arraunean



Hondarribiko bigarren taldean ari da arraunean sunbildarra eta bigarren denboraldia du aurtengoa. Kirol gogorra den arren, gustura dabilela aitortu digu.

ZOZKETA → 44





Muebles
Telletxea

LOGELAK - TAPIZERIA - ARMAIRU ENPOTRATUAK - EGONGELAK - JANGELAK - LIBURUTEGIAK - ATSEDENA - OSAGARRIAK - APAINGARRIAK

**MERKEALDIA
MERKEALDIA
MERKEALDIA**

**IZUGARRIZKO DESKONTUAK
ERAKUSKETAKO ALTZARIETAN**

Rosa Seminario, 12 - Doneztebe (Nafarroa) - [948] 450 258 - www.mueblestelletxea.com

2010ean ere...

Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

Zure laguntza
eskertzeko,
boltsa eder hau
opari izanen duzu!



ttipi-
ttapa

geure bezeroek
aukeratutako
proiektua **can**

Eginzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde
proiektu zenbakia:

15.996

Esku ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kitzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2010eko abenduaren 31a baino lehen.

Ilbeltzaren 15ean hasi zen Nafarroako sagardotegi denboraldia, eta Lesakako Lindurrenborda sagardotegia izan zen horretarako aukeraturako tokia. Sagardoa dastatzen

lehen, berriz, Sebastian Gonzalez lau t'erdiko txapelduna izan zen. Ez da sagar urtea izan 2009a, baina kanpotik, batez ere Galiziatik, ekarritako sagarrarekin «sagardo

goxoa» atera dela adierazi digu Juan Mari Lopez sagardogileak. Krisiak eragina izan dezakeen arren, jendea ibiltzea espero du maiztera arte iraunen duen denboraldian.

Juan Mari LOPEZ | Lindurrenborda sagardotegiko nagusia

«Badakigu inguruko enpresak nola dauden baina jendea espero dugu»

G. PIKABEA | LESAKA

Hamar urte daramatzazu sagardogintzan. Aldatu al da hasi zinetik?

Ez da asko aldatu. Hasiera hartan ez nuen etxeko sagarrak izaten, eta baserrietatik ekartzen nuen. Orain, ordea, nirea gehiago dut. Zuhaitzak jartzen ari naiz, landare gazteak badauzkat, eta nire sagarrarekin egindako sagardoa egiteko helburuarekin nabil.

Urte batetik bertzer a aldatu egiten da sagardoa, eta nolakoa atera da aurtengoa?

Sagardoa aldatu baino gehiago, sagarrak badagoen ala ez da kontua. Aurten oso sagar gutxi egon da, izan zitezkeen urterik txarrentarikoak izan da. Normalean, sagarrondoak bi urtetik behin ematen du sagarra. Urte batean asko baldin badu, hurrengoan gutxiago. 2008a oso urte ona izan zen, baina 2009a eskasa izan da, ez da sagar urtea izan. Eta hemen ez dagoenean, kanpotik ekarri behar izaten da eta kanpokoa kontrolatzea zailagoa izaten da beti. Kamioian ekartzen dute eta ekarri birtartean ezin da jakin nolako sagarra den. Bertako sagarra baldin bada, gehiago eta hobeki kontrolatzen da. Ba-



Juan Mari Lopez sagardogilea.

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

dakizu, gutxiago edo gehiago, nolakoa aterako den. Kanpokoa rekin, aldiz, sagardoa diferenteagoa ateratzen da. Horrez gain, eguraldiak ere badu zerikusia. Batzuetan uda ona egiten du, baina bestetan ez, eta sagarrak eguzkia beharrezkoa du.

Zein ezaugarri ditu aurtengo sagardoak? Sagardo polita atera da, ona. Beharbada alko-

AURTENGO SAGARDOA
«Beharbada alko-
hol gehiago izanen
du eta kolorez
argiagoa da.
Sagarra Galiziatik
ekarri dut eta han-
goa beti hemengoa
baino bixiagoa eta
argiagoa izaten da»

hol gehiago izanen du eta kolorez argiagoa da. Sagarra Galiziatik ekarri dut eta hangoa beti hemengoa baino bixiagoa eta argiagoa izaten da.

Zenbat kilo sagar ekarri dituzu kanpotik?

Hemengoarekin %40a osatua nuen, eta kanpotik 15.000 kilo ekarri ditut. Aurtengoan sagardo gutxiago ekoitzi dut, 20.000 litro inguru guztira. Horietatik 9.000

litro etxeko sagarrarekin egin ditut eta gainerakoa kanpokoa rekin.

Nolako denboraldia espero duzue?

Ikusiko dugu. Badakigu inguruko enpresak nola dauden, enplegu erregulaziorako espedienteak lantegi askotan daude, kaleratzeak ere egon dira, langabekia altua da... Espero dut jendea ibiliko dela, badut itxaropena, baina dena kate bat da eta gu kate horren bueltan gaude. Lehengo urtean ere krisiaren eragina somatu zen, batez ere martxotik aurrera. Hasieran ez zen nabaritu, baina denboraldi erditik aurrera bai.

Inguruko jendeak bai al du ohiturarik sagardotegietara joateko?

Bai, badu. Normalean hona etortzen dena inguruko jendea da: Baztandik hasi eta hona birtarte. Iparraldeko jendeak ere badu etortzeko ohitura eta Gipuzkoatik ere batzuk etortzen dira.

Jendeak bai al daki benetan sagardoa nolakoa den bereizten?

Gustuaren arabera izaten da. Batzuei bixiagoa gustatzen zaie, besteei motelagoa... Baina bai, jendea probatzen aritzen da eta ondotik beti esaten du zerbait.



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Ostalarientzat tabakoa saltzea errentagarria ez bada ere, erretzea debekatea euren kalterako izanen da.

OSTALARITZA → TABAKOAREN KONTRAKO LEGE BERRIA EZTABAIDAN

Toki publikoetan erretzea galaraziko duen legea ez dute begi onez ikusi eskualdeko ostalariek

Aurten ezarri nahi du debekua Espainiako Gobernuak

Uda alderako toki publiko itxietan ezin izanen da tabakorik erre. Horixe nahi du Espainiako Gobernuak: ostatu eta jatetxeetan erretzea debekatu. Horretarako 2006ko

Tabakoaren Kontrako Legean aldaketak egiten ari da eta urtearen erdi alderako indarrean paratzeko asmoa duela iragarri du. Ostalariak, baina, ez dira neurriaren aldekoak.

G. PIKABEA

Hautsak harrotu ditu Tabakoaren Aurkako Lege berriak ostalarien artean. Eta haserre daude, ziur daudelako erretzeko debekua euren kalterako izanen dela.

2006koa da tabakoaren kontrako azken le-

gea. Honek, tamainaren arabera, bitan banatu zituen lokalak. Ehun metro koadro baino gehiagokoetan erretzaile eta ez direnentzako guneak sortu behar izan zituzten; eta titikiagoetan erretzen ahal zen ala ez erabaki. Gehienek baimen-

du egin zuten, baita eskualdeko ostalari gehienek ere.

Berako **Errekalde ostatuan** guttiगतिकि libratu ziren 2006ko legearekin obrak egitetik. Izan ere, muga ehun metro koadrotan finkatu zen, eta Errekaldek 97 ditu.

Erretzaileen alde egin zuten. Errekaldeko Eñaut Lazkanok argi du bezero gehienak erretzaileak direla: «bezeroen %90 inguru». Aitzineko legeak ostalariak «alferrikako gastua» egitera behartu zituela iritzi dio: «abisatua zen azkenean oraingo lege hau etorriko zela, eta ostalariek dirua gastatu zuten, baina deusetarako ez». Lazkanok ere ez da galaraztearen aldekoa. «Ez dakigu zein neurritan eragingen digun, baina gure kalterako izanen da».

Doneztebeko **Titi ostatuan** ere erretzaile «auniz» ibiltzen dela aipatu digu Fran Ezkurra nagusiak. «Ez nuke jakinen bezero gehienak erretzaileak diren ala ez erraten, baina honat etortzen denari ez zaio inporta hemen erretzea». Debekua galdetuta, ez du zalantzarik: «Baztan-Bidasoan dugun klima euritsuarekin, bertze toki aunitzetan baino kaltetuagoak izanen gara. Udako hila-

beteak kenduta, gainekoan ostatu barrenean egon behar dugu, eta lege berriak jendea ostalarietatik botako du. Jende aunitz etortzen baita zerbait hartu bidenabar zigarro bat erretzera. Jende horrek bertze alternatibak bilatuko ditu, etxean gelditu edo erre daitekeen elkarteetara joan».

2006ko legea indarrean jartzeak zer pentsatua eman zion Francis Urrutiari, Elizondoko **Lurdantzalekuko** eta **Antxitonea trinketeko** jabea. Ehun metro koadrotik goitiko lokala edukita obra egitekoa zen, baina azkenean ez egitea erabaki zuen: «Lurren obra egitea pentsatua genuen, baina ez genuen egin, bagenekielako lehenxeago edo beranduxeago erretzea debekatu zutelako. Ez zuen zentzurik obra egiteak».

Lege berri hau gabe ere, ostalaritza garai onean ez dagoela aipatu du Mikel Zabaleta Leitzaiko **Peritza ostatu**ko

IPAR EUSKAL HERRIAN AITZINDARI

Ipar Euskal Herrian toki itxietan erretzea debekatua dago 2008az geroztik

2008az geroztik, leku publiko itxietan erretzea debekatua dago Ipar Euskal Herrian. Urte batzuk lehenago, Frantziako Gobernuak erretzaile eta ez erretzaileen eremuak egokitzen behartu zituen ostalariak, baina lege hori betetzen ez zelako, 2008an behin betiko galarazi zuen. Ordutik bezero guttiago somatu du Maixan Santestebanek, Sarako **Herriko Etxeko Edandegiko** jabeak. «Kanpoan hotz dela, ez da inor etortzen», dio. Horrekin batera, zenbait bezerok ihes egiten diotela antzeman du: «Dantxarinearara joaten dira». Izan ere, han, oraingoz, erre daiteke. Isun haundiak jaso ditzakete ostalari eta erretzaileek toki itxian erretzen harrapatuz gero.

beak. Ziurtasunik gabe begiratzen dio etorkizunari, baina erran digunez, «espero dut legea ez kalterako izatea». Gisa berean, «saltzea baimendua dagoela» oroitarazi du. «Ez zait oso ongi iruditzen egun batetik bestera baimendua dagoen substantzia bat leku publikoetatik galaraztea». Aspalditik zuen debeku honen beldurra: «aurreko legea atera zenean, ikustekoa zen hau etorriko zela».

Lesakako **Atxaspi ostatu**ko Jose Jabier Igoarentzat lege berriak «ez du ez buru, ez buztan»; «bulego batean hartzen diren erabakiak dira, baina gero egunerokotasunean aplikatzen». «Dudarik gabe» euren kalterako izanen delakoan dago: «erretzea galarazita nire taberna beteagoa egonen balitz, gaur bertan debekatuko nuke. Horretarako logikaren legeak agintzen du, ez politikariek egindakoak». Lege berriarekin, «jendea kalera aterako dela, eta bizilagunen loa kaltetua izanen dela» iritzi dio. Eta bertetik, bezero kopurua «jaitziko» dela. «Zertarako atera kafea hartzerara ostatura, ezin badute erre?».

TABAKOA SALTZEA EZ DA ERRENTAGARRIA

Ostatuan tabakoa saltzea bezeroari «zerbitzu bat eskaintzea», dela dio Ezkurrak, tabernariari irabazirik ematen ez diona: «Tabakoaren prezioa goiti doa, baina guk kaxako jasotzen duguna berdina da». Bideberetik, tabakoa saltzeak «oso irabazi gutxi» sortzen dizkiola nabarmendu digu Zabaletak.

Igoa ere iritzi berekoa da: «tabako kaxako 15 zentimo irabazten dugu. Urtean 100 euroko zerga ordaindu behar dugu eta makina mantendu. Beraz, irabaziak zero». Lazkanok ostalarientzat «gastua» dela adierazi du. Baita Urrutiak ere. Dantzalekuko tabako makina kendu egin zuen 2006ko legearekin.

'NI EZ NAIZ POLIZIA'

Legea onartzen bada, seguraski ostalariak kontrolatu beharko du bere lokalean norbait erretzen ari den ala ez. «Gure gain egonen da poliziaren papera egin eta gure tabernako zotiko guztiak kontrolatzea, jendeak ez duela erretzen ziurtatzeko», dio lesakarrak. Norbait erretzen aurkituz gero, isuna



ESALDIA

«Estatuak irabazi handiak ateratzen ditu tabakotik eta ez du salmenta debekatuko»

Eñaut LAZKANOK
Berako Errekalde ostatura



ESALDIA

«Hemengo klima euritsuarekin, bertze tokietan baino kalte- tuagoak izanen gara»

Fran EZKURRA
Doneztebeko Titi ostatura



ESALDIA

«Jendea berotua eta zigarroa ahoan, ez erretzeko erraten badiozu, bronka segurua»


Francis URRUTIA
Elizondoko Lur eta Antxitonea



ESALDIA

«Bi lan jarri nahi dizkigute, eta gure lana ez da jendea kontrolatzea»

Mikel ZABALETA
Leitzako Peritza taberna



ESALDIA

«'Droga' kaltegarri hau saltzeko monopolioa daukana, gero debekatzen duen bera da»

Jose Jabier IGOA
Lesakako Atxaspi ostatura



ESALDIA

«Kanpoan hotz dela, ez da inor etortzen ostatura»

Maixan SANTESTEBAN
Sarako Herriko Etxeko Edandegia

ostalariak eta erretzaileak hartuko lukete. Eta hori ere ez dute begi onez jo: «Beraiek atera badute legea, beraiek kontrola dezatela. Bi lan jarri nahi dizkigute, eta nire lana ez da jendea kontrolatzea. Ni ez naiz polizia, ni ostalaria naiz», dio leitzarrak.

Uste berekoa da Ezkurrak ere: «norbait etorri eta zigarro bat erretzen hasten bada, nik gehienez, ezin duela erre erraten ahal diot. Erretzen segitzen badu, zer egin behar dut nik? Poliziari deitu?».

Beratarraren irudiko, «bakoitzak ikusi behar du erre ala ez», eta hori kontrolatzea ez dagokio ostalariari.

Urrutiak ere «arrasaitza» ikusten du kontrolatzea: «jendea berotua eta zigarroa ahoan baldin balardago, eta ez erretzeko erraten badiozu, bronka segurua izanen dugu». Hori saiheste aldera, «ezin dela erre erranez, kartelak paratuko ditugu, eta jendearen erantzuna zein den ikusiko dugu. Ez gara polizien gisa ibiliko».

Argi dago, ostalariak kontra daude. Gainera, tabakoa saltzea libre izanda, ez diote zentzu haundirik ikusten galarazteari: «batzuetan ahazten zaigu 'droga' kaltegarri hau saltzeko monopolioa daukana, gero debekatzen duen berbera dela», dio Igoak. Lege honekin lortu nahi dena «jendeak erretzeari uztea» da Lazkanoren ustez: «Estatuak irabazi haundiak ateratzen ditu tabakotik, eta ez du salmenta debekatuko».



Nire txanda
Iñaki ALUSTIZA

Bizia abudo baduie

Azken 10 urteak zitzu bizian joan zaizkit, baina ez alperrik. Nik ere haurrak ditut adin zozagarrian, 3 eta 6 urtekoak. Haurrak dituzuenak badakizue zer den hori: zorionez osasunez ongi daudenean ere, zoriontasunaz gain, arazoak ere ikusten ditugu. Haurrak gauean ametsetan negarrez esnatzen badira...ea noiz

Haurrak osasunez ongi daudenean ere, zoriontasunaz gain arazoak ere ikusten ditugu.

koskortzen zareten, guk lo lasai egiteko. Gauetan haurrak lokartzen ez badira...lokartuko zarete segidan oze? Haurrak bazkaltzeko orduan jaten ez badute...haurrak gosez hiltzen eta zuek!... Haurrak txikiak direlikan, konturatu gabe handitzen zaizkigu. Haurrak hauditzen direlikan, ezin ditugu gure ondoan kontu. Eta atautxi-amatxi garelikan, gozatu nahi dugu bilobez (aita eta ama ginelikan guztiz egin ez genuen hura berreskuratzeko). Zertaz itxaron, atautxi-amatxi izatea, hortaz konturatzeko? Barkatu baina 23:30 dire eta banuie haurrak nola lo, arnasa hartzen duten gozatzera...


Ezpala

Aitor AROTZENA

Aurten ere txotx!

Batzuei ez zaie sagardoa gustatzen. Bertze batzuek garestiak direla diote. Gehienak zakkurripurdin daudela (lehenik sagardotegiak eta gero errepideak egin zirela dioenik ere bada). Baina probatu duenak beti bueltatzeko gogoia izaten du. Mahai inguruko edo kupel ondoko lagun eta ezezagun arteko solas, bertso eta kantuek xarma berezia ematen diote sagardotegiei. Txotx!

Nabarmentzekoak



Jon Mikel MATXIARENA
Genaro Taldea peñakoa

Urtarrilaren 27an egin zen Bortziriak, Baztan eta Malerrekako Realza-leak biltzen dituen Genaro Taldeapeñaren aurkezpen ofiziala Beran. Matxiarena da peñako presidentea.



Fernando IRIGOIEN
Lekaroztarra desagertua

Gan den urteko abenduaren 30az geroztik desagertua dago Iruñeko Biurdana institutuan lan egiten duen lekaroztarra. Bere berri duenak 689 648320 edo 628 153940ra deitu.



Beñat ERRANDONEA
Sarako auto gidaria

Dakar Argentina Txile Rallyan 16. postua eskuratu zuen gidari saratarak. Horren meritua ikusteko, aipatzekoa da abiatu ziren 134 autotetatik 57 bakarrik ailegatu zirela helmugara.

Atzera begira → 1994.02.03 / TTIPI-TTAPA 127. zbk



Kupeleko sagardoa libre 1994an ere

Duela hamasei urte garai honetan argitaratu zen aldizkarian, 'Kupeleko sagardoa libre' izeneko erreportajea, goitiko argazki hori ageri zen: «Munduko Lehen Gerra baino lehen Lesakan egindako kupelak Frantziara esportatzen ziren. Ultzamako haritzarekin egiten zituzten, 25.000 litro arteko kupelak eta Behobiaraino idi gurditan eramaten zituzten. Baina gerrak esportazioaren negozioa hondatu zuen», zioen Josetxo Etxegarai, Lesakako Koxkonta sagardotegiko nagusiak. Lekarozko Larraldea sagardotegiak orduantxe ekin behar zion bere lehen denboraldiari eta Jesus Garcia nagusiak aipatu zigunez, «hemengo sagarrondoak kalitate onekoak eta muztio aunitzekoak dira estudioen arabera».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranba eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

| | | | | | |
|--------------------|----------|-----------------------|-----------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria |37€ | Europa |55€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka |31€ |
| Ipar Euskal Herria |55€ | Amerika eta Australia |123€ | Leitza |15€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Gobernuak emandako hitza betetzen ez duenean

Xabi SANCHEZ GORONAETA (Gozamenez Egitasmoa)

Gozamenez/Con mucho gusto gazteentzako sexualitateari buruzko programa komunitario bat da. Hainbat erakunde eta baliabide publikoetako heziketa sexualeko profesionalak zein gazteek eta elkarteek hartzen dute parte. Helburua gazteen sexualitatea jorratzea da, ikuspuntu positibo, plural eta aberasgarri batetik abiatuta. Gozamenez programak gazteen gaitasunak garatzen lagundu nahi du bilakaera pertsonalean aurrera egin dezaten, eta era berean auto-zainketaren jokamoldeak erabiltzen motibatzea haien osasun sexuala babesteko eta zaintzeko. Hamar lan-urteetako eskarmentuak egungo maparen

«Gozamenez programak gazteen gaitasunak garatzen lagundu nahi du bilakaera pertsonalean aurrera egin dezaten»

erradiografia egitea ahalbidetu digu. Honen bidez arlo sozialean, hezkuntza arloan eta asistentzi arloan dauden beharrak ikusten joan gara. Behar hauetatik abiatuta, programaren koordinazio taldeak eztabaida batean murgildu da, aurkitu ditugun gabeziak konpontzeko asmoz eta gazteek dituzten eskaera afektibo-sexualak beteta egon daitezela ahalbidetzeko. Osasunerako Mundu Erakundeak gobernuari emandako aholkuetan oinarrituta, dokumentu batean funtsatu dugu gazteen osasun sexualeko eta ugalketarako zentro baten sortzea. Dokumentua Nafarroako Parlamentuari igorri diogu (...). Dokumentua indar politikoei banatu zaie 2010eko aurrekontuetan sar dezaten. Emaiz ez da positiboa izan eta honek, gure lurraldeko osasun sexualaren garapenerako ekintzak nola baztertu diren kritikatzera bultzatzen gaitu. Iaz 350.000 euro sartu ziren aurrekontuetan arlo afektibo-sexualean ekintzak garatzeko eta Gazteentzako Zentro bat sortzearen aholkua ematen zen. Baina ez da euro bakar bat ere jarri. Eta ez da aurtengo aurrekontuen hitzarmenean sartu. Zentroaren eskaera ez da 2010koan sartu eta gainera, iazko aurrekontua ezin da “berreskuratu” beste ekintza posibleetarako. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Osasun Sailburuak argi berdea ematen dio aipatutako diru-kopurutik “Emakumeen Arretarako Zentroen lana aitortu eta eskerrak emateko publizitate-kanpaina bat” egiteko. Hau da, 120.000 euro publizitatean eta bat ere ez baliabidee hobekuntzan. Egitasmo honen parte garen pertsona askoren lanean oinarrituta, klase politikoa eta gizartearen orokorrean gure egonezina azaldu nahi diegu. 2009ko aurrekontuen partida hori onartu zenean Andraize Zentroak dokumentu bat banatu zien talde politikoei Osasun Kontesilariarekin negoziatzen zirelarik, diru hori inbertitzeko hainbat ekintza proposatzen zirelarik. Emakumeen Arretarako Zentroek egiten duten lana aitortzeko da, baina Nafarroako Gobernuaren kudeaketa eraginik gabekoa eta oso eskasa dela iruditzen zaigu (...).

Haiti eta Munilla

Luis GARDE

Egunotan hondamendiak, zoritxarrak eta tris-teziak badute izen propio bat: Haiti. Hemen-dik auskalo noiz arte, berez Ameriketako herri-rik pobreena zenak imajinatzen ahal genituen marka guziak gaintu ditu zoritxarraren sailkapenean. Baina gezurra dirudien arren, denok ez gaude ados iritzi honetan, badago hainbertzerako ez dela pentsatzen duena. Posible da? Bai, eta hemen-dik oso hurbil.

Lehenengo egunean, Donostiako gotzain berri eta famatuari, Jose Ignacio Munillari, edonori bururatzeko zaigun galdera egin zioten irratiaio batean: Baina nola izan daiteke zuek predikatzen duzuen Jainko onbera horrek

Haitin gertatu den bezalako tragedia bat permititzea? Gotzain mediatikoa ez zen moztu eta harro-harro erantzun zuen: “Badira tragedia hori baino handiagoak direnak”. Zeintzuk? Ba, bere hitzetan, “espainiarren egoera espiritualetan pobrea, gure bizitzaren kontzeptu materialista”. Eta lasai-lasai-gelditu zen. Gero, hitz hauek titular gisa egunkarietan agertu zirenean, bere burua kazetarien biktima gisa aurkeztu zuen, politikarien antzera malintepretatua izan zela erranez, etabar... Baina berak errandakoa grabatua gelditu zen, eta ezin ukatu hitz horiek erran zuenik. Hori bai, bere hitzak plano teologikoan eginak zirela argitu zuen. Zer ote da plano teologiko hori? Hain ergelak gara herritar arruntak, gauzak aldrebes ulertzen ditugunok, teologia ez jakiteagatik.

Gauzak konpontzen bukatzeko, Donostiako gotzainak gehitu zuen inoxente hauek sufritzen duten gaitza ez dela behin betikoa, zeren Jainkoak betirako zorientasuna agintzen die. Nola definituko genuke giza-sentsibiltate falta hau? Zinismoa bezala, adibidez?

Ongi dakigu, noski, eliza katolikoa zer den, horren hierarkiak nolako pentsaera duen, muturrekoa eta integrista. Baina argi dago egunez egun atzera eta atzera egiten ari dela bere pentsaeran. Nere alde-tik, bizitza osoan agnostiko izan banaiz, hemen-dik guttura ateo naizela aldarrikatuko dut, eta harro!

«Ongi dakigu eliza katolikoa zer den, horren hierarkiak nolako pentsaera duen, muturrekoa eta integrista. Baina argi dago egunez egun atzera eta atzera egiten ari dela bere pentsaeran. Bizitza osoan agnostiko izan banaiz, hemendik guttura ateo naizela aldarrikatuko dut, eta harro!»

Irakurleak mintzo

Eskualdea defendatu, borrokatu!!!

EZKER ABERTZALEA

Ezker Abertzaleak Baztan-Bortziri-Malerrera eskualdean gertatzen ari den egoera sozio-ekonomikoaren inguruan gogoeta hau helarazi nahi du.

Lehenik eskualdean ematen ari diren langile eskubideen urraketa salatu nahi dugu; erantzule garbi eta bakar bezala patronala eta Nafarroa Gobernua kokatuz. Honi gehitu eskubide urraketa hauen azken kaltetuei; hots, Funverako langileei gure elkartasun eta babes eskaini nahi diogu aurrera eramaten ari diren greba mugagabeen.

Orain 30 urte patronalak eta Nafarroako elite politikoak (gerora Nafarroa gobernuan agintean egon direnak), UGT eta CCOO sindikatuek babes eta konplizitatearekin egituratu zuten Nafarroa foral y españolaren paradisua mila puskatari txikitzen ari da. Hainbat urtetan aditu dugu Nafarroa gehien komeni zitzaigun markoa zela, eta bertan ongizatea bermaturik izanen genuela, beti ere beraien interes politiko eta ekonomikoak bermatze aldera.

Argi ikusten da, garrai hartan inposatutako markoa herriaren interesak defendatu baino, guttiengo elite politiko eta ekonomikoaren interesen mesedetan erai-

ki zela. Gure eskualdean 1100 langabetu daude eta 2000 langiletik gora onartu diren 20 erregulazio espedienteetan. Biztanlego aktiboa 8000 pertsonakoa da, beraz gizartearen %33 a behin-behinean edo behin-betiko langabezian dago. Egoera horietan argi ikusten dazela den elite horien helburua, alde batetik beraien irabaziak etengabe areagotzen joan eta bertze alde batetik marko hau blindatu beraien negoziokoak egiten jarraitu ahal izateko.

Eskualde honetan egiten ari direna; N-121-A moldaketa, Erdizeko harrobiaren egitasmoa, Lekarozko Aroztegiko proiektua, espekulazioa inmobiliarioa... helburu horiek erdiesteko pausuak bertzerik ez dira. Gure eskualdea desindustrializatu nahi dute, zerbitzu eta turismo-ra zuzenduriko ihardura ekonomikoa nagusitzeko, horrela lanpostuen galera masiboa, herrien hustutzea, "Ciudad dormitorioen" sorrera herrien nortasunaren kaltetan, kapitalismoari men eginen dion jendartearen alienazioari... bide eman nahi diote.

Ikusirik aspalditik ezagutu dugun Bortziriari industrialia mehatxatuta eta arriskuan dagoela, agerikoa da jendartean dagoen haserrea eta egonezina. Alabaina, borrokaren ondorioz aurre egiten ari zaio egoera honi (Erdiz, Funverako borroka, alkateen deialdiak, LAB eta ELAren arteko elkarlana, merkatariek elkar-

teak sortzea eta hauen dinamikak, Maiatzak 21eko greban emandako erantzuna...). Ezker Abertzaletik egoeraren larritasuna azpimarratu eta borrokan jarraitze-ko deialdia luzatzeaz gain, irtenbidea zein den argi utzi nahi dugu; Nafarroak hain beharrezkoa duen aldaketa politikoa eta soziala.

Dei egin nahi diegu eskualdeko biztanleei dagozkigun eskubideen defentsan tinko eta irmoki lanean jarraitze-ko. Defenda dezagun gure eskualdea eta borrokatu etorkizuna!!

Zer du irabazteko Baztanek zundaketa hauekin?

Isabel ALEMAN, Marian ETULAIN eta Edurne GOIENETXE

Hori da gure buruari galdetzen dioguna urtarriaren 4ean Baztan-go batzar orokorrean egon ondotik. Bertze gaien artean, Amaiurko MUNOn Ofita bilatzeko Zundaketa batzu egiteko aukera aztertzen zuten puntu bat eztabaiatu zen orduan.

Amaiurko herriak, bozka bidez, zundaketa horien aurkako iritzia azaldu zuen: partehartzea %90 ingurukoa izan zen eta hauetatik %95 zundaketen aurka agertu zen. Emaiza aski argia izanik, udaleko

bi taldeei (NABAI eta UPN) gutxi arduratu die. Amaiurko alkate-jurandoak gaia mahai gainean uztea eskatu zion batzar orokorrari (junta generala), honela batzarreko pertsona guzietan leku eta afekzioei buruzko informazio gehiago izan zezaten. Amaiurte argi ikusi baitugu, batzar orokorreko partehartzaileetako gutti daktela, zehazki, MUNOn dagoen. Zergatik aurka gauden? Arrazoi aunitz daude.

Lehen a eta garrantzitsua: biztanleen erdia (250tik, 100 inguru) zundaketa eta etorkizuneko harrobitik 2 km edo gutxiagora bizi garelako (batzu 200 metrara).

Bigarrena: Udalak, baimenak errezegi eman dituelako; etorkizuneko proiektuaz, empresari, ez dio inongo dokumentaziorik eskatu (herriari eskaini eta erakutsitakoa ez seurik). Horregatik udalak ez daki zenbat lur mugituko den, inguruko lurretan izango dituen eraginak... harrobia egin ezker. Beraiek diote: "zundaketak dira bakarrik". Bai eta, gero?

Hirugarrena, Udalak dioenez, onuragarria omen da bailarentzat, bere lur azpian dauden ontasunak jakitea. Hau badakigu Nafarroako mapa geologikoei esker; mapa hau denentzat eskuragarri dago Nafarroako gobernu salmenta tokietan. Beraz, zundaketa hauek tramite hutsa dira; dakitena baieztatu eta bide batez harrobiaren proiektuan pausu berri

bat emateko.

Laugarrena, Harrobi honek izango duen ikuspegiarekiko eraginagatik. Harrobi hau N-121B errepedeak (60-62 km-en artean) inguratzen duen magal batean kokatuko litzateke. Zundaketak errepede honen inguruko lurretan egiten dira eta puntu hau Baztangoiza gutti ikus daiteke hala nola kuartel hau inguratzen duten mendi guzietatik (Alkurrunz, Gorramendi, Auz...). Harrobi honek gutti lagunduko du Udaletik (NABAIko alkate eta zinegotziek) indartu nahi omen duten nekazaritza iraunkorrari.

Orain arte errandakoagatik, gure ustez Bailarak deus gutti dauka irabazteko zundaketeekin. NABAI inoiz ez du kontuan eduki inguruko lurrei eta biztanleei eragindako kaltea (asotsa, hautsa, trafikoa...) zundaketa hauei baieztakoa ematean; bertalde, enpresa pribatu batek ez du ulertuko zundaketarako baimena ematea eta ondotik harrobiaren hustiaketa proiektua aurkezterakoan, udalak arazo eta onura guzietan sakonki aztertuta, ezezko bat hartzea, agian, Udalak, arazoaren dimensioa, onurena (zerga batzu eta agian lanposturen bat) baino handiagoa dela ikusita.

NABAIko udal taldeak bere jarrera berrausartu dezan eta ez daie la iraganen, denek ezagutzen ditugun eta egunkari eta aldizkariaren orriak bete zituzten, egindako akatsetan berriro erori.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



Bota bertsoa
Amaia ELIZAGOIEN

Inauterietako mozorroa prest

Inauteriak hasi geroztik ez da pasatu egunik tradizioak eta gogoak jarraitzen dute bizirik lau trapu zahar ta ileordeak ez dugu behar besterik baina guztia ez zen hain errez atzera begiraturik ez ote dira hemen pasatu desgrazia eta gerrik eduki dute gosarik eta dena mugaturik arbasoentzat hau ez genuen dibertsioa bakarrik tokatu zaien patu hartatik aske sentitzea baizik.

Gainean daude jadanik eta prestatzen pare bat egun batzuk kolorez jantzi nahi dute eta beste batzuk ilun kalera irten mila mozorro izkutatzen mila lagun karroza batzuk, irrifar batzuk hamar joare, joaldun herriko kale guztietatik bai egun ta bai gau jardun bukaera ez da urrun eta horregatik entzun lehengoengatik ta guregatik nola zortea daukagun azken aldia balitz bezala aurtun gozatu dezagun.

11 galdera labur

Nor da Miren Martin?

Neska alaia eta edozein gauzetarako beti prest dagoena.

Besta egiten, ikasten edo lanean. Zeinetan moldatzen zara hobekien?

Besta egiten.

Doneztebe ez den besta egiteko toki bat?

Azpeitia.

Zer du bada Azpeitik?

Giro polita, hemengoaren antzekoa.

Baduzu afiziorik?

Txistua jotzen dut eta zaldian ibiltzea ere gustatzen zait.

Txistulari bezala, urtero huts egiten ez dituzun egunak zein dira?

Eguberriak, San Pedro bestak, Txistularien Eguna...

Inauterietan inoiz jauntzi duzun mozorrorik gustukoena edo politena?

Joaldunena.

Nola doaz Gazte Burrenbaoko diru kontuak?

Ongi, ongi.

Zein da Gazte Burrenbaoko egoera?

Jendea ez da sobera sartzen la-guntzera, eta beti erraten egon behar da, baina hori betikoa da. Gaude-nak gustura gaude eta hori inportantea da.

Zer da Doneztebetik gehien gustatzen zaizuna?

Nire herria da.

Amets bat?

Bordatxo berriz ere xutik ikustea.



Miren MARTIN → Doneztebeko gaztea

GIRE TRUKOIA ELASTIA

MUS TXAPELKETA
relaxipago

IREKIA (baziñde, ez baziñde...DENENTZAT)

EGUNA: Otsatak **13**

TOKUA: IANOTENEA

ORDUA: 4ra

IZEN EMITEA:

Serarik ez zirena Iantzerenako ostaldea 12€ bilaketa

SARIAK:

- 400€ + TXAPELA
- 2 AFARI ZUBIONDON
- 2 AFARI ZALAINEN
- 2 LOTE MARTIKO

ZUBIONDO

ZALAIN

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

BERA

Zero inguruas klase guzietako insektuz (xomorro, zinoarra, ormiarra, kukuxu...) eta orrotei xagutuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduz

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 507 • Zalaia, 42 A • BERA

ERROTAZAR

harategia

Bertako produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ZOANSA

SEAT

VW

HYUNDAI

Audi

MARKA GUZIEKON KONPONKETA

Banaria, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

UNA ESCUELA PARA TODOS DENONTZAKO ESKOLA



C e n t r o
S a g r a d o
C o r a z ó n
J e s u s e n
B i h o t z a
I k a s t e t x e a

AURRE-INSKRIPZIO EPEA

Otsailaren 5etik 12ra



Legia, 20 • 31780 BERA • T. 948 630 009
scorazonbera@planalfa.es

LANA → 55 EGUNEKO GELDIALDIAREN ONDOTIK

Funverako langileek greba bertan behera utzi eta lanean hasi dira

Lanera bueltatzearen alde egin dute 70 langilek

TTIPI-TTAPA

Funverako langileek bertan behera utzi dute greba eta lanera itzuli dira. Urtarrilaren 25ean hartu zuten erabakia, lantegi atarian, grebarekin segitu ala enpresak egindako eskaintza onartu erabakitzeke egindako batzarrean. Kaleratutako 47 langileek ere bozketan parte hartzeko eskubidea zuten, 142 langilek guzira. Horietatik 97k eman zuten botoa eta 70 enpresaren eskaintza onartzearen alde agertu ziren, 16 kontra, 10 boto zuri izan ziren eta bakarra baliogabea.

LAB GREBAREN ALDE

LABek grebarekin segitzearen alde bozkatzeko eskatu zuen. ELAk egin zuen batzarrerako deia, baina LABek kritikatu egin zuen: «lantegiak ez baitu deus trukean eskaintzen». LABen irudiko, akordioak bi puntu «bakarrik» ditu: «batetik, lau kontratu-erlebo egitea –hitzarmenaren arabera eginak egon behar lukete–, eta bertetik, lantegiak ebentualak behar dituen kaleratu-

en zerrendatik hartzea hurrengo lau urteetan». Baina LABentzat, «langileak behar dituen normalena esperientzia dutenak hartzea da». Dabit Iturria LABeko ordez-kariaren hitzetan, kaleratutako langileak «alde batera» utzi dira eta bozketan «enpresaren mehatxupean eta beldurrez egin da». «Borroka eredugarriak amaiera negargarria izan du», uste du LABek.

ELA: «LANGILEEN ERABAKIA ERRESPETATU»

ELAk, bere aldetik, LABen jarrera kritikatu du: «ez du Funverako langileen erabakia errespetatu nahi». Eta «ezinbertzekotzat» jo du «langileek beraiek modu demokratikoan erabakitzea enpresaren azken eskaintzari buruz».

Felix Espelosen ELAko kidearen ustez, «behin kaleratu eta indemni-

zazioak ordaindu direla, horri buelta ematea zaila da, baina plantillan gelditzen ginenek greban segitu dugu zerbait gehiago lortzeko. Azkenean, dena gutti da, baina lau errelebo-kontratu lortu dira eta apirilaren 1ean 47 horietatik lau sartuko dira aurrejubilatzen direnak ordezkatzeko eta hurrengo lau urtetan espero dugu kaleratutako langile horietatik sartzen joatea».



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Garai bateko eta egungo Realeko jokalariekin inaugurazio ederra

Bortziriak, Baztan eta Malerrekako Realzaleak biltzen dituen Genaro Taldea peñaren aurkezpena egin zen urtarrilaren 27an Rikardo Baroja ikastetxean. Ttiki gelditu zen aretoa, adin guzietako ehun zale baino gehiago bildu baitziren. Denek izan zuten gozatzeko aukera, ekitaldira, garai bateko eta egungo Realeko jokariak joan baitziren: Satrustegi, Gorriz, Periko Alonso, Iriarte baita Zubikarari, Ansotegi, Zurutuza eta Bergara ere. Gaztetxoei autografoak sinatzen aritu ziren. Genaro Taldeak omenaldia ere eskaini nahi izan zion Genaro Zelaieta zenaren alargunari, Maria Luisa Martinezi, eta bi alabei, Amaia eta Iratxeri. Hala, aureskua dantzatu zioten, eta oroigarriak eta bertsoak ere eskaini zizkion. Ekitaldiarekin bukatzeko luntxa izan zen Xuga ostatuan.

FLASH

Mus txapelketa

Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, mus txapelketa azkarra jokatu da hilaren 13an lamotenean. 16:00etan hasiko da eta izena 15:00etatik aitzinera eman behar da, bikoteko 12 euro ordainduta. Lau sari eder banatuko dira.

Inauteriak prestatzen

Gehienek mozorroak pentsatu izanen dituzte dagoeneko, gainean baitaude inauteriak. Horren seinale, kaldererok larunbat honetan, otsailak 6, aterako dira. Inauterietako gainerako ekitaldiak, berriz, otsailaren 10etik 15era izanen dira. Aitzinetik entsaioak egingen dira. Kalderero gisa ateratzeko prestaketak ortzegun eta ortziral honetan, otsailak 4 eta 5, egingen dira, 19:00etan Musika Eskolan. Inude eta artzainetan ateratzeko, berriz, hilaren 10ean eta 12an, 20:00etan Eztegarra pilotalekuan. Bazkarirako txartelak entsaio egunetan paratuko dira salgai.

Zuhaitzaren eguna martxoaren 7an

Udalaren laguntzarekin, Ehiza eta Arrantza Elkarrekin zuhaitzaren eguna antolatu du martxoaren 7rako. Egun horretan zuhaitzak landutako dituzte Lizuniagan 09:30etik aitzinera eta bakoitzak bere tresna eraman behar du. Joan nahi dutenek aitzinetik eman behar dute izena elkartean, otsaileko ortziraletan 19:00etatik 21:00etara. Izena ematen dutenei plaka egingen zaie eta hartara, landatzen duten zuhaitzak bakoitzaren izena eramanen du.

ERREKALDE
PLATER KONTRAKTAK
DITZAK
KONTAKTUA
TFONA: 948 630 259 BERA

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

LESAKA

UDALA → JOAN DEN URTEAN BAINO %40,9 GUTTIAGO

2,5 milioi euroko «krisi aurrekontua» izanen du aurten Udalak

PNVk eta EAk hasierako onespenera eman zioten eta Oninek kontra bozkatu zuen

Aitor AROTZENA

Udalak 2.574.273 euroko aurrekontua izanen du aurten, EA eta PNVen aldeko botuekin eta Oninen kontrakoekin, hasiera batez onartu ondotik. Andra Mari erresidentziak, berri, 650.000 euroko sarrera-irteerak izanen ditu.

Udal aurrekontua %40,9an jaitsi da joan den urtetik, PNVk aipatu duenez «ekonomia-egoera orokorrari eta udalaren oraingo egoera zehatzari buruzko hausnarketa egin ondoren aurrezteko asmo garbiz, oraingo gastuak guttitzea da balio duen formula bakarra». Alde horretatik, inbertsioen atala izanen da murrizketarik handiena somatuko duena, 297.500 euroko inbertsioak eginen baitira (iaz 1.951.600 eurokoak izan ziren), «ez gaudelako abenturatan sartzeko moduan eta obra garrantzitsuek esperatu beharko dute». Halere, «garrantzitsuak dirrelako» zenbait kontu-

sail handitu ere egin dira, errate baterako, landatzeak egiteko eta mendiak garbitzeko inbertsioetan, 30.000 eurotik 105.000 eurora pasatu baita eta karrikak eta bide publikoak garbitzeko aurrekontua ere 25.000tik 78.000 eurora handitu da.

Oninek kontra bozkatu zuen, «herritarrek udalean dituzten ordezkariekin iritzia hartu beharko litzatekeelako kontuan, ez bakarrik bozkatzeko garaian, baita idazteko garaian ere». Aurrekontuak lehenik batzordetan aurkeztu eta eztabaidatu behar direla uste du Oninek, «denon artean adostasuna lortzen saiatzeko». Hori dela-eta, «oraingoz bozkatu gabe uztea» eskatu eta bere burua eskaini zuen Oninek bertze aurrekontu «landuago eta errealegoa» egiteko. Zenbait sailetan aurrekontua murriztu baino lehen bertze irtenbide batzuk bilatzen ahal direla ere aipatu zuen. Honela Espainiako Gobernuak E-Planaren zati bat Andramari zahar etxera bideratzea «arratsko txandako langile batzuek galtzeko» eta bertze zati bat Musika Eskolara bideratzea eskatu zuen Oninek, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza erdira murriztu behar duelako.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Hainbat jende bildu zuen San Anton Egunak Endara auzoan

Endara auzoan, hainbat lagun bildu zen urtarilaren 17an, oinez, zaldiz, bizikletaz nahiz autoz, San Anton eguna erromeria giroan pasatzera. Baselizan orduero mezak izan ziren eta batzuk, beraien aziendekin joan ziren (zakurrak batez ere), baselizari hiru itzuli eman eta osasuna segurtatzeko. Soinularien doinuekin gustora ibili ziren dantzariak. Errokillak, taloak, eta bertzelako jan edatekoak eskaintzen zituzten postuak ere paratuak zeuden.

PNVrentzat iraunkortasuna «lau gurpilen eta motor baten gainean ibiltzea» dela dio Oninek

A.A. | LESAKA

PNVk mugikortasun-mahaiari egin dako kritikei eta trafikoaren inguruan emandako kopuruei erantzun egin die Oninek. Talde honen ustez, «iraunkortasuna herriko ingurumenaren alde egitea da, herriaren barrenean bizikleta erabiltzea sustatuz, ogia eta egunkari eske oinez joanez eta hobetzeko edozein iradokizun aditzeko prest egonik. Itxuraz, EAJren eta bertze batzuen ustez, iraunkortasuna herriaren barna lau

gurpilen eta motor batean gainean ibiltzea da». Oninek erdi-brometan dioenez, seinalizazio berriarekin 45.880 kilometro gehiago egin behar badute herritarrek, «ez da egia onuradunik ez dagoenik, gasolindegiko jabeak eskuak pozez igurztzen ariko dira». Jendea nahi duen lekuan ibili eta aparkatzen badu, «udaltzain gehiago jarri beharko dugu edo bertzela, herriko seinale guztiak kenduko ditugu eta bedi jainkoan nahi duena» dio Oninek.



OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Inauteriak hurbiltzen ari diren seinale, giroa somatzen da herrian

Ttikienak hasiko dira ospakizunekin Ortzegun Gizenean

Joseba eta Nerea

Aste pare batean ailegatuko da mozorro-besta Etxalarrera. Inauteriei Ortzegun Gizenak emanen die hasiera heldu den otsailaren 11n. Herriko ttikienak izanen dira lehenbizikoak, goizean etxez etxe eskean ibiliz. Aspaldiko ohiturari segituz, *urtzaingizen, urtzaingizen, zingar-arraultze, bat ezpada bertze, biek hobe!* kantatuz, puxkak biltzen ariko dira.

14:30ean plazan elkartu, bertsoak kantatu eta kalejiran abiatuko dira trikitilariekin. Domekeneko atean Haur Hezkuntzakoek antzerkia egingen dute. Lehenengo Hezkuntzakoek, berriz, frontoian eskainiko dute beren ikuskizuna. Azkenik, Antso-lokuetan dantza egingen

dute eta ondotik ongi merezitako berendua eta musika izanen dute plazan.

KINTO-BESTAK, INAUTERIEN PIZGARRI

Urtero bezala, inauterien aitzinetik kinto bazkariak egingen dira otsailaren 14an, igan-

dean. Eguna hasteko, eguerdian poteoa egingen dute kinta guztiek elkarrekin eta ondotik Elutsan, Herriko, Anttonion eta Etxalarko Bentan kinta bakoitzak bere bazkaria izanen du. Bazkalondotik, berandura arte luzatuko da besta seguruenera.

HAUNDIEN INAUTERIAK, HILAREN 15 ETA 16AN

Astelehena baserrietan eskean ibiltzeko eguna izanen da. 08:30ean Anttonion elkartuko dira gazteak. Gosaldu ondotik, goiko eta beheko auzoetara banatuko dira trikitilariekin. Bazkariak Armi-

txen eta Usategietako usazaleen txabolan egingen dituzte. Ilunabarrean Herriko Ostatuan elkartuko dira bi taldeak pintxoak afaltzeko.

Asteartean karrozen txanda izanen da. 12:00etatik aitzinera gisa guzietako mozorroak plazara hurbilduko dira eta herrian barna desfilea egingen dute euren karrozekin. Ondotik, gazteek bazkaria izanen dute Herriko Ostatuan eta jubilatuek urteroko ohiturari segituz, Larraburuan. Arratsaldeko bertso pilotak 18:30ean emanen die akabila frontoian aurtengo inauteriei.



ARGAZKIAK: JOSE LUIS ARRETXEIA

Mendi irteerak

Azken urteetan bezala, aurtun ere hasi dira mendi-irteerak Altxata Kultur Elkartearen eskutik. Lehenengoa San Antonera izan zen urtarrilaren 17an. Arrakastatsua izan zen, 18 lagun joan baitziren. Bigarrena Sunbillako inauteriak ikustera izan zen. Ohitura den bezala, Larraburuan bazkaria egin zuten mendi-buel-taren ondotik. Otsailaren 7an, berriz, Azkura joateko intentzinoa dute, ondotik, Gorospilko txabolan gosari ederrarekin akabatuz. Parte hartu nahi duten guztiek badute aukera, haur, gazte nahiz helduentzat irekiak baitira irteerak.

Etxalarko Arkupeko bazkideen besta

Igande honetan, otsailak 7, ospatuko dute Arkupeko herritarrek urteko besta. 11:30ean meza izanen da 2009. urtean hildako bazkideen alde eta ondotik bazkaria egingen dute Anttonion. Giro ederrak eta umoreak ez dute hutsik egingen.

ELUTSĀ
OSTATU
TABAKOAK
INAUTERI ONAK PASA ITZAZUE!
Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

PLAZAKO
denda
ongi pasa inauteriak!
ETXALAR • 948 635 028

HERRIKO
OSTATU - JATETXEA
Menua
Plater konbinatuak
Karta
Banketeak
ONGI PASA INAUTERIAK!
Andutzeta, 15 • 948 63 54 50
ETXALAR • NAFARROA

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Ortzegunetik larunbatera ospatuko dira inauteriak

Xehetasunak inauteriei buruzko gehigarrian

Nerea ALTZURI

Mozorro Xuriek ortzeguneko Zakuteneko gosariarekin indartsu hasiko dituzte inauteriak. Kuadrilla ederra bilduko dira aurten ere: 30 gazte inguru, horietatik lau musikariak eta Mozorro Xuriak gainerrakoak, 18 eta 28 urte bitartekoak.

Ortzegunean, gosalduta eta eskolara bisita egin ondotik, lau auzoetako eskeari ekinen diote, bi taldetan banatuta. Eta hortik aitzinera, larunbatera bitarte haur, gazte nahiz helduentzako ekitaldiak izanen dira. Egunez eguneko xehetasunak inauteriei buruzko gehigarrian aurkituko dituzue.

Mozorro eta beste egiteko gogo pixka bat baduen horrek badaki aste hondarrean atek zabalik dituela.

Arazoak LTDarekin

Nafarroako herri gehienetara bezala, abenduaren 9an ailegatu zen

itzalaldi analogikoa gurrera, baina badirudi, oraindik zenbait etxetan

herritarrek arazoak dituztela telebista LTD bidez ikusteko. Kasu horietan, edozein arazo edo

kexa izanez gero, telefono hauetako batera deitu behar da: 848 427444 edo 948 010110.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Haitira elkartasuna

Inguruko hainbat herritan bezala, Haitiko hondamendiaren ondotik, hango bizilagunei laguntzeko kanpainan parte hartu dute herritarrek. Horrelako kasuetan izan ohi den moduan, jendearen eskuzabaltasuna goraipagarria da oraingoan ere. Janari eta diru bilketa ederrak izan dira eta Behar Bidasoa Gobernu Kanpoko Erakundearen bitartez, herrikoa bezalaxe eskualdekoa, itsasoz Santo Domingon Mercedariak serorek duten egoitzara bidaliko dute. Joan den urtarriaren 18tik 22ra bitarte Zahar Txokon janari bilketa egin zen, kontserba latak, pasta, azukrea, esnea, arroza, olio, lenteja, garbantzoak eta bertze. Hilaren 23an, berriz, larunbarekin aurten Sendotza egin behar duen gazte kuadrillak herriko apaizarekin material guzua kamioira kargatu zuen. Modu batean edo bertzean guztia bidaltzeko lan handia egin da.

ETB IKUSTEN SEGITZEKO SINADURA BILKETA

Nafarroan ETB ikusten segitzeko helburuarekin, *Mugarik gabeko telebista* kanpaina sinadurak biltzen ari da herriz herri, eta gurean ere izanen da aukera. Otsailaren 19ra arte Herriko Etxean egiten ahal izanen da. Informazio gehiago 16. orrialdean.

Karrikak konponduko dira

Krisi ekonomikoari aurre egiteko Espainiako Gobernuak abian paratua duen E-Planean, 69.000 euro egokitu zaizkio Arantzari, eta Udalak diru hori herriko karrikak konpontzen segitzeko erabiliko du. Iaz, Udal Inbertsiorako Estatu Funtsoko deialdia egin zenean, 114.688 euro hartu zituen Udalak eta horiekin Goiko Karrika eta Karrika Nagusiko zola moldatu da.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 467 406 781

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t: 948 631 106 w: www.zalain.com

udana salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
SQC-02-0199
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta
Bakailu gezatuta eta kongelatuta, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. - Banarta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Ortziral eta larunbat honetan izanen dira inauteriak

Larunbat arratsaldean haurrak kalejiran ibiliko dira

TTIPI-TTAPA

Ortziral honetan, otsailak 5, hasiko dira inauteriak Igantzina eta biharamunean izanen dute segida. Aitzineko urteetan bezala, ohiko mozorroak jauntziko dituzte gazteek, eta ortziral goizean hasiko dute etxez-etxe eta baserri-baserriko ibilbidea, Oihana Mindegia eta Oihana Elizalde Aurtizko trikitilari eta panderojoleekin.

10:00etan elkartuko dira eta Berrizaun auzora joanen dira. Frain auzoa eta bidegurutze aldean dauden etxe be-



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Gazte kuadrilla ederra elkartuko da aurten ere inauterietan eta ez da umorerik faltako.

rrieta ere orduan egingen dute bisita. Etxez etxe eskean ibili ondotik, herrira itzuli eta Allinean bazkalduko dute.

Arratsaldean, berriz, herri inguruan eta Sarrola auzoan ibiliko dira

gazteak eskean. Eta egunari behar bezalako akabera emateko Biltoki elkartean afaria egingen dute.

Larunbatean, 08:00etan elkartu eta Irisarri auzotik hasita, herri

bazterreko bertze auzoetan ibiliko dira gazteak egun osoan: Elusta, Unanu eta Piedade auzoetan.

Etxez-etxe eskean dabilzanean, etxe bakoitzeko boleto bana

banatuko dute eta horren zozketa larunbat arratsean egingen da, 20:30 aldera. Bildotsa zozketatuko dute. Afaria, berriz, La Villan egingen dute.

Musikariek ere ez da faltako larunbatean. Eta arratsaldean eta gauean Josetxo musikariak alaituko ditu bazterrak.

HAURRAK ERE KALEJIRAN

Neska-mutikoeke izanen dute inauterietan tokia. Hala, larunbatean, 16:00etatik aitzinera herriari buelta emanen diote trikitilarien laguntzarekin, eta ondotik tailerrak izanen dituzte frontoian. Azkenik, berendua egingen dute frontoian, eta eguraldi txarra baldin bada, Baratzondon.

J. RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen ditut
Sakeleko: 637 836 073 - LESAKA

USOA
nekazarri kooperatiba
ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

OKILA
-Tartimak, leihoak, ateak, eskailerak...
-Obretako lanak orokorrean
Lander Soiz • Mikel Arlanas
948 637 249 • Piedade gaina zig • IGANTZI

LA VILLA
JATETXEA
Janari tradizionala • Egunero irekia
IGANTZI • Tfnoa: 948 63 72 90 (Erreserbak egiteko)
ONGI PASA INAUTERIAK

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK,
Piedadeko auzoa, 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)
608 20 21 26 • 618 90 18 10

SUNBILLA

EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA → KANPORAKETA ULIBELTZAK ELKARTEAN

Iruñeko mus kanporaketan ariko diren bi bikoteak erabaki dira

Martxoaren 6an Iruñeko Arrano elkartearen ariko dira

Jaione OTXANDORENA

Euskal Herriko Mus Txapelketaren barne, martxoaren 6an Iruñean jokatu den bigarren fasean ariko direnak Koro Zelaieta eta Izaskun Maiz bikotea eta Mikel Arretxea eta Iñaki Mikelarena bikotea izanen dira. Bi pareja hauek izan baitziren urtarilaren 22an Ulibeltzak Elkartearen jokatutako kanporaketako txapelkunak eta azpitxapelkunak. Martxoaren 6an Iruñeko Arrano elkartearen ariko dira.

Guztira 16 bikotek eman zuten izena, eta hirugarrenak Raket Ur-



ARGAZKIA: JON ANTZIZAR

Ekzerretik hasita, Mikel Arretxea Iñaki Mikelarena, Izaskun Maiz eta Koro Zelaieta, Iruñean ariko diren lau muslariak.

txegi eta M^a Jesus Iriarte izan ziren eta laugarren Jose Luis Agirre eta Jose Miguel Galain gelditu ziren.

Lerro hauen bidez, antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkie Ulibeltzak Elkarteari, sa-

riak emateagatik eta lekua uzteagatik.

Inauterietako argazkiak Interneten

Inauterietako argazkiak Interneten ere

ikusgai paratuko dira: www.festak.com web orrian, hain zuzen. Udaren eta inauteriak antolatzen dituztenen dirulaguntzarekin lortu da hau.

Hainbat eta hainbat tokitan ateratako ekital-

dietako argazki andana egoten da ikusgai web horri horretan, eta nahi izanez gero, erosteko aukera ematen du.

Bertsolari Txapelketa

Jende dezente bildu zen urtarilaren 24an Ulibeltzak Elkartearen, Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren azken-laurdena ikustera. Ale politik entzuteko aukera izan zen eta irabazlea Xabier Legarreta aranoarra izan zen. Hurrenez hurren, nola gelditu ziren: Xabier Legarreta (414,5 puntu); Iñigo Ibarra (385 puntu); Iñaki Aleman (375 puntu); Aritz Saragueta (357 puntu); Ekaitz Astiz (334 puntu) eta Egoitz Gorosterrazu (330,5 puntu).

ZUBIONDO
Jatetxea
Sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel: 943 625474

ola
SAGARDOTEGIA
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
102 Meaka auzoa - 20304 IRUIN - Tfnoa 943 623 130

XIRELLI
Alzara 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 448

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Alzara, 1 - Tel: 948 630 983

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUIN

ANTZUZELAS
S.L.

Tel: 948 631 317

HARRO NATURALA

Aleratzen eta Lantzen

Harroak
Lantzen
Beldurrak
Lantzen
Gorputz
Lantzen
Beldurrak
Lantzen

Harroak eta Beldurrak
Lantzen eta Beldurrak
Lantzen

**ZINTZARRAK
KIDENAK
ZOLA**

Irungo erropak
BERA

sarobe
gocotegia olinotegia

Erdo estegara 25 baxo
94700 berainavarra
1948 630 899
www.sarobe.net

AZPIEGITURAK → KIROLDEGIA HAUNDITUA

Muskulazio gela eta erabilera anitzeko gela egin dira kiroldegian

Horrekin batera inguruan ere lanak egin dira

TTIPI-TTAPA

Kirola maite dutenek aukera berriak aurkituko dituzte berriki zabaldu den kiroldegi haundituan. Muskulazio gela berria eta erabilera anitzeko bertze gela bat egokitu dira, gimnasia egiteko edo arte martzialetarako erabiliko dena, bertzeak bertze. Lasterka egiteko zintak, bizikletak, kaloria erretzeko makinak... 09:00etatik 22:00etara egoten da zabalik.

Urteko bonoa 150 euro gostatzen da eta horrekin aipatu bigelak, sauna, dutxak, igerilekuak... erabil daitezke. Lan hauek aprobetxatuz, inguruera ere txukundu da eta apartakalekuak, argiak, espaloiak, bankuak... paratuko dira.

Espainiako Gobernuak joan den urtean emandako 269.376 euroekin egin dira lan hauek.

OBRA GEHIAGO

Herrigunean edo alde zaharrean pibote hidraulikoak paratzeari ere ekin dio Udalak, ekitaldiaren bat dagoenean erabiltzeko.

Horrela, hesiak paratu eta kentze hori saihestuko da. Izan ere, pibote hauek erdi-automatikoak dira eta lurrean sartuak daude, eta behar denean, automatikoki igotzen dira.

Horrekin batera, altzariak ere erosi dira: pape-rontziak, bankuak, bizikletak uztekoak...

Hauetarako 23.102 euroko laguntza hartu da.

Garapen ekonomikoa hizpide

Herriaren egoera ekonomikoarekin kezkatuak, Udalak eskatuta Inicativas Innovadoras enpresa egiten ari den azterketa laster akituko da. Ondotik, herriaren garapen ekonomikoan zerkusia duten eragileekin bilduko da Udala hilaren 9an, 08:00etan.

Berdintasuna lortzeko ekimena

Emakume eta gizonen berdintasunaren alde lan egiteko itun sinatuko du aste honetan Udalak, Lana, Familia eta Bizitza Pertsonala Uztartzeko Ituna, hain zuzen. Berdintasunerantz joateko osagaietako bat lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea dela iritzita egiten da.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Kultura kontseilaria haurtzaindegian bisitan

Joan den urteko otsailaren 2tik haurrak ikasgeletan bazeuden ere, urtarrilaren 28an Alberto Catalan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak egindako bisitarekin Askin haurtzaindegiari nolabaiteko inaugurazio ofiziala eman zioten. Kontseilariarekin batera, Teresa Aranaz Hezkuntza Departamentuko Antolaketa, Kalitatea eta Berrikuntza zuzendari nagusia, Miguel San Miguel alkatea eta Oskar Mindegia, Gloria Agerrri eta Juana Muñoz izan ziren bisitan. Diana Bruño zuzendariaren azalpenak adituz ikusi zituzten haurtzaindegiko instalazio guztiak. Haurtzaindegia bisitatu ondotik, San Miguel ikastetxea eta Mendaur institutura joan ziren, aitzinetik, pilotalekuan egindako lanak eta gimnasioaren moldaketa lanak ikusita. Sara Maylin eskolako eta Ainhoa Mitxeo institutuko zuzendariekin bildu ziren eta hauek heldu den urterako leku arazoak izanen dituztela-eta, laguntza eskatu zioten kontseilariari.



Errekako txirindulariak

Erreka Kirol Elkarteko txirindularitza taldean ez daude geldirik egoteko. Joan den astean akitu zen Errekarekin federatzeko epea, eta aldi berean, taldearen izena eramanen duten jantzi bereziak egiten direla jakinarazi zuen.

Hiru kide berri Kasinoko Zuzendaritzan

Urtero bezala, eta tenorea ailegatzarekin batera, Kasino elkarteak Zuzendaritza Batzordea berritu du. Ilbeltzaren 16an egin zuen urteko batzarra eta zuzendaritzako sei lagunetatik hiru atera eta hiru bazkide berri sartu ziren: Francisco Indart, Itziar Zelaieta eta Santi San Migel. Bi urteren ondotik, kargua utzi dutenak, berriz, Patxi Olazar, Mikel Mutuberria eta Juan Mari Artazkoz dira. Joan den urtetik gelditzen diren bertze hiruek Luis Migel Apezetxea lehendakaria, Patxi Ganboa idazkaria dira eta Jabier Jabalera bokala dira. Juntako kide berriek euren karguak izanen dituzte. Hala, Indart lehendakariordea izanen da, Zelaieta idazkariordea eta San Migel bokala. Heldu den urtean berriz berrituko da zuzendaritza eta aurten ordezkoak direnek kargu nagusiak hartuko dituzte, eta sartzen diren berriak ordezkoak izanen dira.

BAZKIDEEN EGUNA BERRESKURATU NAHIAN

Urteroko ekitaldiei eustea da zuzendaritza berriaren asmoa. Horrela azaldu digu Patxiku Ganboa idazkariak. Horien artean, azken orduko aldaketarik ezean, otsailaren 27an barrikotea egiten da. Aspaldiko urteotan galdua dagoen Bazkideen Eguna ere berreskuratu nahi dute juntako kideek.

TEKNOLOGIA BERRIEKIN LANEAN

Denboraldi berriarekin batera, informatizatzea erabaki dute Kasinoko zuzendaritzakoek. Elkartearen kudeaketa teknologia berrien bidez egin nahi dute eta ordenagailu eramangarri bat erosi dute horretarako. Horrez gain, gauzak errazteko, bazkideei euren helbide elektronikoak edo telefonoak jakinarazteko eskatu diete, eta ahal dela, elkarteko kutxan uzteko.

BEINTZAKO OSTATUA
☎ 948 45 00 14
adela@adela.com
www.adela.com
1131 BEINTZA LARREN
ORBELA


ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

OITZ

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Hilabeteko azken larunbatean egingen da inauterietako afaria

Gaztetxoak mozorrotu eta eskean aterako dira

Leire ELIZONDO/TTAPI-TTAPA

Inauteri aldi honetan, herri guztietan mozorrotu, otordu, puska-biltze eta gainerako ohitura politikak izaten dira. Eta Oitzen ere, gainerako herrietan bezala, inauteriak ospatuko ditugu. Erran beharra dago, badirela urte batzuk herriko jendea mozorratzetik gelditu zela, baina badirudi aurten herriko gaztetxoan ohitura onak jarraitzeko prest daudela eta mozorrotu eta etxez etxe puska bila ibiliko direla. Ea egia den eta herriak ohiturari jarraitzen zaion.



ARGAZKIA: SERGIO BARRICART

Inauteriak ongi pasatzeko direla erran beharrik ez dago. Begira, bertzela, 2007ko inauterietan zeinen ongi pasatu zuen argazkiko kuadrillak.

GAUEAN AFARIA HERRIKO OSTATUAN

Urtero bezala, aurten ere ez da faltako inauterietako seinaleari eusten dion afaria. Otsailaren 27an izanenda, eta Herriko Ostatu-

an 21:00 aldera jendea biltzea espero da. Gaua alaitzeko Agerralde akordeoilaria izanendugu gurekin. Besta ederra egitea da helburua eta denok ederto pasatzea.

Ur depositu berria

Astebatzuetako atzerapenen ondotik, eta azken orduko makurrik ezean, joan den astean paratzekoa zen martxan ur depositu berria. Be-

rez, joan den urte amaieran hastekoa zen herritarrek hornitzen, baina lanak gibeleratu egin ziren. Altu dago depositu berria eta altueran egonik presioa erregulatzeko balbulak paratu behar izan dira etxeetan. Lan horiek guztiek eragin dute atzerapena.

Babesteko hesiak bide bazterretan

Krisiekonomikoa dela-eta, Espainiako Gobernuak abian duen E-Planean, herri sarreran eta baserrietara joateko bideetan hesiak edo bazter-babesak paratzeko dirulaguntza eskatuko du Udalak. Biztanleriaren arabera emanen du laguntza, eta Oitzen kasuan, 17.000 euro inguru hartuko dira, iaz baino guttiago.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Ortziral honetan Herriko Ostatuan egingen den afariarekin hasiko dira inauteriak

Larunbatean gazteak baserrietan ibiliko dira eskean

TTIPI-TTAPA

Dena prest dago inauterietarako. Ortziral honetan, otsailak 5, hasiko dira, eta horren seinale afaria egingen da Herriko Ostatuan.

Egun haundia, harelere, larunbata izanen da. Goizean goiz, mozorrotu, taldean bildu, gosaldu eta karro gainean baserrietara abiatuko dira gazteak, batetik bertzerara eskean ibiltzeko.

12 urtetik 30 urtera bitarteko 10-15 bat lagun elkartuko dira aurretan ere eta musikariengana laguntzarekin, egun osoa baserri-baserri pasatu ondotik, arratsan berriz herrira bueltatuko dira.

Gauean, eskean ibili direnek eta animatzen diren gainerako herritarrek afaria egingo



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bide bazter batzuetan babeserako hesiak paratu nahi ditu Udalak.

nen dute Herriko Ostatuan.

GAZTETXOAK HERRIAN

Neska-mutikoak ere eskean ibiliko dira, hauek ere mozorrotuak eta musikariekin, baina gaztetxoek herrian barna egingen dute itzulia.

Igandean, berriz, bazkaria egingen dute Herriko Ostatuan eta horrekin emanen zaie akabera aurtengo inauteriei.

DATUA

20.000

EURO

hartuko ditu Udalak E-Planaren bidez. Ostatuan erradiadoreak paratzeko eta bide bazterretan babeserako hesiak paratzeko erabiliko da.

Erradiadoreak paratuko dira ostatuan eta hesiak bide bazterretan

Espainiako Gobernuak martxan paratu duen E-Planarekin 20.000 euro hartuko ditu Udalak, eta diru hori hainbat lan egiteko erabiliko da. Lehenbizi egingen den lanetako bat Herriko Ostatuan erradiadoreak paratzea izanen da.

Horren ondotik, eta gelditzen den diruaren arabera, zenbait bideetan hesiak edo bazterbabesak paratuko dira. Bertzeak bertze, Galzadakobordara doan bideko zati batean, eta Itturriotzeko bideko bertze zati batean.

Dirulaguntza eskaera Nafarroako Gobernuari

Urtero uda aldera langabeak kontratzeko Nafarroako Gobernuo Enplegu Zerbitzuak ematen duen dirulaguntza aurten ere jasotzeko eskaera egin du Udalak.

Hiru langabe hartzeko eskatu du, eta langile horientzako Udalak esku artean dituen proiektuak, berriz, hauek dira: herritik Tellerirako bidea konpondu, eta ahal bada, hormigoia bota, eta horrekin batera, herritik Mokoro aldeara doan bidea garbitu. Bertze bide bazterretan ere lanak egin nahi ditu Udalak.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatura
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karririk
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

ITUREN

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA → HERRIKO HIRU BERTSOLARI PARTE HARTZEN

Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaiak eta Alazne Untxalo Bertsolari Txapelketan

Larunbatean Alazne Untxalo Garesen ariko da

Arkaitz MINDEGIA

Urtarrilaren 23an abiatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa Aizarotzen eta nabarmentzekoa da aurten, historian lehen aldiz, hiru herritarrek parte hartuko dutela txapelketan.

Lehendabiziko azken laurdenean Iker Gorosterrazuk hartu zuen parte eta 341,5 puntu lortu zituen. Urtarrilaren 24an, berriz, Sunbillako Ulibeltzak elkartean Egoitz Gorosterrazuren txanda izan zen, eta honek 330,5 puntu eskuratu zituen.

Alazne Untxaloren bertsoak aditzeko aukera Garesen izanen dugu larunbat honetan, otsailak 6. Bertze borts bertsolariarekin lehiatuko da Garesko udaletxeko erabilera anitzeko aretoan, 17:30etik aitzinera.

ASPALDITIK BERTSOTAN

Egoitz, 1992an sortua, Basogintza ikasten dabil eta 12 urterekin hasi zen bertsotan. Orain, Oronoz-Mugairin elkartzen da bertsotan egiteko beste hainbat bertsolariarekin batera. Urtero eskolartekoetan parte



ARGAZKIAK: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Goian Alazne Untxalo ageri da. Aurtengo txapelketa larunbat honetan hasiko du Garesen; tartean Iker Gorosterrazu, Aizarotzeko saioan aritu zen eta behean ageri dena Egoitza anaia da. Sunbillan aritu zen estreinakoz Nafarroako Txapelketan.

hartu izan du eta aurten lehen aldiz eman du izena Nafarroakoan.

Iker anaia, berriz, irakaskuntza ikasten ari da. Gaztetatik ibilia da bertso eskolan, baina «serio» 13 urte zituela hasi zen. Aurtengoa hiruga-

ren txapelketa du. Bi anaiak gogor dabilta bertso munduan.

Alazne 1989. urtean jaio zen eta Haur Hezkuntza ikasten ari da. 2006an eskolarteko txapelak lortu zuen eta 2007an lehen aldiz har-

tu zuen parte Nafarroako Txapelketan.

Ur-horniduran aldaketak

Joan den urte bukarran jarri zen ur-horniduraren sistema berria

martxan, Aurtitzen ura edangarria bihurtzeko dagoen plantatik. Planta honetatik Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillako herritarrek hornitzen hasi dira.

Sistema honek aldaketa batzuk ere ekarri ditu funtzionamenduan, eta horren ondorioz, prezio berriak ezarri dira. Hiru hilabetez ur kontagailuak irakurriko dira eta ondotik errezi boia pasako da. Edozein zalantza argitzeko Herriko Etxera jo behar da.

Xalao Telebista herrian grabatzen

Nafarroako mendialdeko 42 herritan saio bereziak grabatzen ari da azaroaz geroztik Xalao Telebista. Ituren eta Zubietara ere ailegatu da eta aste honetan herrian barna grabaketak egiten ari da. Guztira zortzi saio egingen dira, eta horietako bat platoan grabatuko da ortziral honetan, Herriko Etxeak utziko duen gela batean. Goizean eskolako haurrak izanen dira protagonista, eta bertzeak bertze, jokoetan eta telebistako lanean ariko dira. Arratsaldean, berriz, herriko gainerakoak pasako dira platotik. Xalao Telbistak hilaren 8ko astean emitiko du aste honetan grabatutakoa.

Ttiti-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

Eginzazu TTIPI-TTAPAren alde

proiektu zenbakia: 15.996

Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau operatzen duzu!



UDALA → AZPIEGITURAK

Sekretarioaren etxeko teilatua konpontzen saiatuko da aurten Udala

Egoera txarrean dago eta Udalaren aspaldiko nahia da konpontzea

Fermin ETXEKOLONEA

Garai batean idazkariaren edo sekretarioaren etxea izan zen Uhaldea obra baten beharrean dago; ez dago luzarozan horrela egoteko. Eta hori aurten konpontzea Udalaren lehentasunetako bat izanen da.

Bere garaian, Nafarroako Hirurteko Planean aurkeztu zuen Herriko Etxeak proiektua, baina atzera bota zioten. Orain berriz hartu du proiektua esku artean, eta teilatua moldatu nahi dio. Obra dirulaguntzaren batekin eta



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Uhaldeko teilatuak erortzeko arriskua duela-eta, auzolanean moldatu nahi da aurten.

auzolanean egitea da asmoa.

Porteriekin zer egin zalantzan

Futboleko aritzeko plazan egoten diren

porteria edo ateekin zer egin erabakitzen ari da Udala. Izan ere, segurtasun aldetik, lotuak egon behar dute, baina kendu eta jarriz ibiltzen dira, eta batzue-

tan plazaren alde batean baztertuak gelditzen dira.

Alde batera uztea legez ez dago onartua, eta Udalak hainbatetan jaso ditu Foru Po-

liziarene abisuak. Horregatik ari da porteriekin zer egin eztabaidatzen, eta buruan daramabilen asmoetako bat, atea plazatik kendu eta behar direnean Udalarari eskatzea da.

Oraindik erabaki gabe dago zer egin, eta beraz, ikusiko da zer gertatzen den.

Lur-mugimenduak

Isun haundiren bat saiheste aldera, ohar bat jakinarazi du Udalak. Badirudi, lur-mugimenduak baimenik gabe egiteagatik isunak jartzen ari dela Nafarroako Ingurumen Departamentua, eta horrelakorik ez gertatzeko, baimenik gabe ez deus egiten hasteko ohartarazi die Udalak herritarrei.



ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE

Dagoeneko 2010 denboraldi berriari hasiera eman diegu Etorri eta ezagutu gure eskaintza berria

"Bigarren pertsona prezio erdian"

- Masajeetan
- Edertasunean
- Jatetxea
- Terma eremuan
- Ostatuan

BALNEARIOA: 2010ko abuztuaren 20tik aurrera. Hona hemenko balnearioa eta bertakoak eskaintza berria ematen du. Hona hemenko balnearioa eta bertakoak eskaintza berria ematen du. Hona hemenko balnearioa eta bertakoak eskaintza berria ematen du.

Errotaldeia z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 - www.balnearioelgorriaga.com

LEGASA

ESPAINIAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA → E-PLANA

Irisora doan pistako 270 metrotan hormigoia botako du Udalak

Espainiako Gobernuaren subentzioarekin egingen da

TTIPI-TTAPA | LEGASA

Espainiako Gobernuak 2010erako iragarri duen E-Planaren barruan, Irisora doan bidearen 270 metro hormigonatuko dira.

Hasiera batean, Kontzejuak *erreka zahar* moldatzeko eskatu zion Udalari, baina diru kopurua handia zenez, azkenean Irisoko pistan hormigoia botatzea erabaki da.

Gazteek Haitirekin bat egin dute

Bidelagun Elkarteak urtarrilaren 25etik 29ra antolatutako *Haiti larri-*



UTZITAKO ARGAZKIA

Irimora doan bidean botako da hormigoia.

aldiko laguntza ekimenean parte hartzeko herriko gazteek hainbat janari erosi zuten. Bide batez, elkartasuna adierazi nahi izan zieten han-

go herritarrei. Izan ere, berriki jasan duten lurrikara bortitzaren ondorioz, hagitz kaltetuak izan dira. Bildutakoa Irungo Behar Bidasoa

Gobernuz Kanpoko Erkundera bidaliko du Bidelagun Elkarteak eta hemendik, itsasoz, Santo Domingora joanen da, Haitiko portua kal-

tetua utzi baitu lurrikarak.

Inauteriak otsailaren 20an

Joan den urtarrilaren 9an gazteek egindako bileran, aurtengo inauteriak otsailaren 20an ospatzea erabaki zuten. Inauteriei buruzko xehetasunak hurrengo alean jarriko ditugu.

Gazteen bilera ortziralean

Gazteen bilera ortziralean honetan, otsailak 5, 21:00etan egingen da. Ondoko gai hauek landuko dira: alde batetik, sagardotegira ateraldia eta bertetik, ekainaren 5ean egingen den Bertizarana Eguna antolatzeko boluntarioak behar direla.

osasuna
kirola
ongizatea
dibertsioa

Abonatu LESAKAra

ABONATU BERRIA

%20ko DESKONTUA SARRERAKO MATRIKULAN
HILABETE BATEKO KUOTAREN DESKONTUA
(1. go urtean, urteko azkeneko kuota doan)

(Eskaintza honek 2010eko apirilaren 30a arte balio du)

Galdetu Kiroldegian dauden eskaintza guztien informazioa

INFORMAZIO GEHIAGO:
Tel. 948 637 400 | e-Posta: lesaka@urdisl.com

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Otsailaren 12, 13 eta 14an izanen dira inauteriak

Eskolako hurrek Ortzegun Gizenean ospatuko dituzte

Igandean, hilak 14, 14:00etan bazkaria egingen da eta segidan, mus txapelketa jokatu da. Inauteriei behar bezalako akabera emateko, afaria egingen da.

IZEN-EMATEA

Otorduetan izena emateko azken eguna igande hau, otsailak 7, izanen da.

GAZTETXOAK LEHENAGOTIK

Eskolako hurrek lehenagotik ospatuko dituzte inauteriak, Ortzegun Gizen egunean, otsailaren 11n. Goizean etxez-etxe ibiliko dira eta ondotik, bazkaria izanen dute. Arratsaldean, berriz, plazan jokoak egingen dituzte.

TTIPI-TTAPA | NARBARTE

Gutti gelditzen da inauteriei hasiera emateko, aste bat bertzerik ez. Otsailaren 12an, ortziralarekin, Herriko Ostatuan egingen den afariarekin hasiko baitira.

Hurrengo egunean, larunbata, gosaltzeko elkartuko dira eta ondotik, gazteak etxez-etxe eskean ibiliko dira. 21:00etan afaria izanen da ostatuan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Neska-mutikoez mozorroak prest izanen dituzte dagoeneko, eta gazteei seguraski ez zaie bestarako gogorik faltako. Argazkiei begiratu bertzerik ez da egin behar, aitzineko urteetan inauteriak nola joan ziren jakiteko...

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea



Otsaila. Merkealdiak. Aste txuria.

Tafalla, 13 • IRUÑEA

948 230 634

edredoi fundak
albomozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
mairindireak
mantelak
kuxinak
toailak

KOMUNIKABIDEAK

SINADURA BILKETA → OTSAILAREN 19A BITARTE

Nafarroan ETB ikusten segitzeko sinadura bilketa Baztan, Bortzirriak eta Malerrekan

Valentziako Acció Cultural elkartearena da egitasmoa

TTIPI-TTAPA

Mugarik gabeko telebista izeneko kanpaina Baztan, Bortzirriak eta Malerrekara ere ailegatu da. 2007an Herrialde Valentziarren sortu zen kanpaina hau, katalanez emititzen den eta hainbat oztopo gainditu behar izan dituen TV3 telebista publikoaren emankizunak legez bermatzeko helburuarekin.

Baina ekimena galizieraz, euskaraz eta katalanez ari diren hedabide publikoetara ere hedatu dute. Nafarroaren kasuan, ETB ikusten segitzea da helburua, hau da, lege bidez euskarazko telebista ikusteko aukera bermatua izatea. Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaindiak eta Kontseiluak egin dute bat sinadura bilketa honekin eta Baztango Udalaren,



ARGAZKIA: EUSKALTZAINDIA

Ezkerretik eskuinera, Toni Gisbert Acció Cultural del País Valenciàren ordezkaria, Jose Mari Velez de Mendizabal Eusko Ikaskuntzako arduraduna, Andres Iñigo Euskaltzaindiaren izenean eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia, Iruñean ekimena aurkeztu zutenean.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Malerrekako Euskara Zerbitzuaren bidez ailegatu da eskualdera.

VALENTZIATIK DATORRENA

Valentziako PPreneko gobernua TV3ren seinalea eteten saiatu izan delako Acció Cultural del País Valencià elkarrekin (ACPV) abiatu zuten egitasmo hau 2007an. Erregio eta Gutxien

goen Hizkuntzen Europako Gutunean oinarrituz, lege proiektua egin zuten, telebista publikoaren emisioa agintari politikoaren borondatearen baitan egon ez dadin. Aipatu lege hori Espainiako parlamentuan landu behar denez, herritarren sinadurak biltzea erabaki zuten. Aukerarik onena Ekimen Legegile Herritarra izan zela pentsatu zutela irizita.

500.000 SINADURA

Herri ekimen legegilea aurkezteko, 18 urtetik goitiko 500.000 lagunen sinadurak behar dira. Herrialde Katalanetan 300.000 bildu dituzte dagoeneko eta Euskal Herrian bildu nahia dira orain.

Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan otsailaren 19a bitarte egin ahal izanen da sinadura: Baztanen udaltxean; Bortzirietan

DATUA

500.000

SINADURA bildu behar dira herri ekimen legegilea aurkeztu ahal izateko.

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako udaletan eta Malerrekan Zerbitzu Orokorren Mankomunitatean (Doneztebe).

Gainerakoan, Eusko Ikaskuntzaren bulegoetan (Iruñea, Donostia, Gasteiz eta Bilbo), Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan eta Iruñeko, Donostiako eta Gasteizko ordezkarietzan eta Kontseiluaren Andoaingo egoitzan izanen da sinatzeko aukera, haue- tan, otsailaren 25era arte.

Sinatzerakoan ba-koitzaren datu guztiak idazteko aholkatu dute, NAN-ean ageri diren bezala. Oker bat idazte- zerrendatik kanpo uzteko nahikoa delako.

Donostia kalea • Sokoa Merkataritza gunea, 10 • HONDARRIBIA
T. 629 070936 • www.estatxa.com

estatxa
centro náutico

5
BIDASOAKO AKADEMIA NAUTIKOA
Itsasgintzarako tituluak lortzeko Eusko Jauriaritzak homologatutako akademia

Itsasontziko patroia:

- ONP (Oinarrizko Nabigazioko Patroia) PNB
- LOP (Laketontziko Patroia) PER
- Yateko patroia

OIHANGINTZA

INGURUMENA → NEGUKO BASOZAINZA KANPAINA ABIAN

Basoak erretzeko baimena martxoaren 12ra arte eska daiteke

Apirilaren 19an itxiko da erretzeko kanpaina

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 21az geroztik abian da neguko basozaintza kanpaina, Nafarroako Gobernuak basoetan suteak prebenitzeko eta itzaltzeko egiten duen kanpaina, hain zuzen. Gainera, apirilaren erdialdera arte baliabide material eta giza baliabide gehiago jarri dituzte larreak erretzeko pizten diren suak kontrolatzeko.

Berez, erretzen duenak du segurtasuna bermatzeko erantzukizuna baina gure esku-aldean Eprif taldearen laguntza izaten da horretarako. Talde hau Larrialdi Agentziako eta Ingurumen Departamentuko langileekin elkarlanean aritzen da.

Larreak erretzeko baimenak martxoaren 12ra arte eska daitezke



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Erre behar den egunean suhiltzaileei abisatzea ezinbertzekoa da.

eta erretzeko azken eguna apirilaren 19a da.

BALDINTZAK

Baimenduz gero, berteak bertze, ondoko baldintza hauek bete behar dira:

- Larreak erre behar diren egunean, hurbileko suhiltzaileei deitu behar zaie, toki horretan erretzea baimendua dagoen ala ez baieztatzeko eta ze-

hazki non erreko den adieraziz.

- Landareak bakarrik erre daitezke, eta erreka, kuneta, sakabana-tutako zuhaitzetan ezin da erre.
- 09:00etatik 17:00-etara bitartean egin behar da erretzea.
- Haizea baldin badago ez da surik piztuko.
- Erretzeko momentuan, guttienez bortz lagunek horegon behar-ko dute.

LAGUNTZA GEHIAGO

Nafarroako Larrialdi Agentziak 28 laguntzaile kontratatu ditu aurten Oronoz-Mutgairi eta Auritzeko parkeetan lan egiteko, 2009an baino lau gehiago. Gisa berean, bi parkeetan basoko autoponpa bat eta langileak garraiatzeko ibilgailu bat gehiago edukiko dute denboraldi honetan, baita zortzi zorro itzaltzaile ere.

KANPAINA

Urtarrilaren 21ean abiatu zen neguko kanpaina eta apirilaren 19a izanen da erretzeko azken eguna.

DATUA

250

HEKTAREA

erre ziren joan den urtean Baztanen, aitzineko urtean baino %50 guttiago.

2009KO KANPAINA

Nafarroako Gobernuko iturrien arabera, 2009ko neguko kanpainan 462 hektarea erre ziren Nafarroan, horietatik 49,6 zuhaitziak. Sute gehienak larreak hobetzeko edo basozaintza lanetarako piztu ziren kontrolatu gabeko suteen ondorioz gertatu ziren. Baztanen erraterako, 250 hektarea erre ziren, iaz baino %50 guttiago.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

| | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> ☞ Langile autonomoak ☞ Nekazariak eta mendi langileak ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak ☞ Lan-Kontrabutarako laguntzak ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea | <ul style="list-style-type: none"> ☞ Diru-laguntza ezberdinak ☞ Kontabilitateak ☞ IVA eta IRPF ☞ Errenta aitortpenak ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak |
|--|---|

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

LEGARRA

| | |
|---------------|-------------------|
| • EGUNKARIAK | • FOTOKOPIAK |
| • ALDIZKARIAK | • ENKUADERNAZIOAK |
| • LIBURUAK | • PLASTIFIKAZIOAK |
| • OPARIAK | • FAX PUBLIKOA |
| • TABAKOA | |

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

HERRI ALDIZKARIAK → ELKARLANEAN

Topaguneko 20 herri aldizkarik Tokikom marka bateratua sortu dute

Aldizkari hauen guztien titularrak Tokikomen web gunean eskura daude

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko toki-ko aldizkari batzuk elkartu egin dira eta marka bateratua sortu dute: Tokikom. Eta horrekin batera Interneteko atari berria eratu dute: www.tokikom.com. Herri aldizkarien talde

izaera azpimarratu, eta bide batez, bakoitzaren eremutik kanpora indartzea da Tokikom markaren helburua.

20 ALDIZKARI

20 aldizkarik hartu dute parte Tokikom definizioan, eta tartean dago TTIPI-TTAPA. Denak euskarazko hedabideak dira eta hurbileko informazioa lantzen dutenak. Topaguneko hedabideak dira, eta irakurle kopurua- ren aldetik, liderrak dira bakoitza bere eremuan. Halaxe diote



TOKIKOM OSATZEN DUTEN ALDIZKARIAK

- ... eta kitto! (Eibar)
- Aikor (Txorierri)
- Aiurri astekaria (Beterri-Buruntza)
- Aiurri hamabostekaria (Beterri-Aitzondo)
- Anboto (Durangaldea)
- Asteleheneko Goienkaria
- Barren (Elgoibar)
- Begitu (Arratia)
- Berton (Mahatserria)
- Drogeteniturri (Ermua)
- Goienkaria (Debagoiena)
- Guaixe (Sakana)
- Hernaniko Kronika (Hernani)
- Karkara (Orio-Aia)
- Otamotz (Urretxu-Zumarraga)
- Pil-pilean (Soraluze)
- Prest (Deustualdea)
- TTIPI-TTAPA
- Txintxarri (Lasarte-Oria)
- UK (Uribe-Kosta)

egin diren azterketa guztiek (CIES, AZTIKER, IKERTALDE...). TTIPI-TTAPAREN kasuan, erraterako, 2009an CIESEK egindako ikerketaren arabera, 26.000 irakurle ditu. Eskualdean liderra izateaz gain, CIESEK Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere irakurle gehien dituen aldizkaria da TTIPI-TTAPA.

20 aldizkariak elkarrekin, berriz, 220.000 irakurle baino gehiago dituzte, eta horrek ematen dituen aukerak ere hobeki aprobetxatu nahi dira.

WEB ORRIAN DENAK ELKARREKIN

Herri informazio guztia toki bakarrean jasotzen du [\[tokikom.com\]\(http://www.tokikom.com\) web orriak, 20 herri aldizkari atari berean eskura, beraz. Tokikom osatzen duten hedabideetako al-bisten titularrak ageri](http://www.toki-</p>
</div>
<div data-bbox=)

dira web horri horretan, eta bakoitzaren gainean klikatuz gero, jatorrizko webgunera joateko aukera izanen da.

DATUA

220.000

IRAKURLE

dituzte Tokikom osatzen duten 20 aldizkariak elkarrekin. Horrek ematen dituen aukerak hobeki aprobetxatu nahi dituzte.

DATUA

26.000

IRAKURLE

ditu TTIPI-TTAPAK, CIES etxeak egin duen ikerketaren arabera. Datu horiekin liderra da eskualdean eta Nafarroako Mendialdean.



GOIZUETA

UDALA → HERRITARREI DEIALDIA

Komunalari buruzko herri batzarra antolatu du Udalak hil honen 13rako

Herritar guztiak deituta daude 19:00etan hasiko den batzarrera

Esteban AROTZENA

Azken hamarkadetan beste zenbait korporaziook egin bezala, Mieljoxe Lekuona buru den honen ere egin nahi du beresaiakera komunalaren gai korapilatsua behin betirako konpontzeko.

Oraingo saiakera sendoa dela dirudi gainera. Bilera asko egin omen ditu alkateak Iruñean honetaz. Beraz, mamitsua izan daiteke herritarrei eztabaidarako aurkeztuko zaien proposamena.

Horretarako lehenengo urrats bezala, batzarra antolatu du Udalak hurrengo larunbata, hilak 13rako. Herritar guztiak deituta daude 19:00-etarako, lur komunalen «jabe» izan edo ez izan.

Udal tasak izoztuak

Aurtengo udal karga-tasak iazkoaren berdinak izanen dira korporazioak aho batez hartutako erabakiaren arabera. Batzuk aipatzearren, esan, eraikuntza eta obren gainekoa aurrekontuaren %3,7a izanen dela, eta ura, berriz, tarifa inbiduala 33 euro eta industrialak 66 euro. Zirkulazio eta jarduera ekonomikoaren zergak foru legeak onesten dituenak izanen dira.

Igoko den zerga, eta asko gainera, zaborrena izanen da. Mendialdean sartzeak abantailak ekarriko ditu, birziklapena, esate baterako, baina baita Mankomunitateko beste udalerriekin adinako diru kopurua ordaindu beharra ere. Dena den, horren berri emanen dugu luze eta zabal aldatetarako hurbildu ahalaz.



ARGAZKIA: J. J. ETXEBERRIA

Baserri batzuen egoera kaxkarra

Herriko etxeak bat bestearen atzetik konpontzen ari diren bitartean, baserriak oraindik erortzen ari dira gurean. Begira, bestela, ederrenetako batek, Txakurtxok, orain dela bizpahiru hilabetez geroztik daukan itxura.

Hilaren 14, 15, 16 eta 20an karnabalak



Beti bezain distiratsu eta ero izanen dira izenburuan aipatutako egunetan ospatuko diren inñoteak. Horrexegatik eusten zaie festa honen ardatz eta mami diren ekitaldiei bere horretan urteak joan eta urteak etorri. Mozerroen taldearen irudia da zeozer aldatu dena, begiratu bestela, 1953ko argazki honi. Goian ezkerretik eskuine-

ra: Itxortxako Antselmo, Bordatxuriko Pio, Baztanbordako Jexux, Fermiñeneko Domingo, Txamoberriko Juan txo, Joxe Martin Eratsun, Frantxiskeneko Motza, Karretoko Kornelio, Xanti Miru, Sarrango Xanti, Ganddegiko Luis, Karretoko Batista, Pako zapateroa, Txamoberriko Joxe Antonio eta Kusingo Joxe Ramon.

XIMON harategia
948 514 056
GOIZUETA
INAUTERI ONAK
IGAROH

GOIZ ARGI TABERNA
Inauteri zoriontsuak opa dizkizuegu
948 514 044 - GOIZUETA

MAI
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
Inauteri zoriontsuak
opa dizkizuegu
K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242

ttipi-ttapa
• Paperetako edizioak
• Hemeroteka
• Eguneko berriak
• Agenda
• Merkatu Itxia
• Eguraldia
• Urtebetetxoak...
www.ttipi.net

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Hemen dira karnabalak!

Larunbatean egun osoan izanen dira ekitaldiak

Maidar ANSA

Larunbat honetan, otsailak 6, ospatuko ditugu karnabalak. Betiko moduan, goizean goiz aterako dira herriko zomorroak puxka biltzera Izer eta Alabier trikitilari eta panderojole bikoteak lagunduta. Goiz guztia herriko buelta egiten pasa eta gero, merezitako bazkaria izango dute zomorroek San Roke elkartearen.

Bazkalondoa, 17:00 aldera, zai-dantza emango dute umore ederrean eta afaltzerarte trikiti doinuak izango dira nagusi herrian. Eguna amaitzeko, herri afaria egingo da, hau ere San Roke elkartearen, eta ondoren, Tapia eta Leturia izango ditugu giroa berotzeko goizalderarte.

Zomorroetan ateratzeko deialdia zabalik

TAPIA ETA LETURIA

Goizean etxez-etxe bueltan Izer eta Alabier bikoteak alaituko ditu bazterrak, eta gauean, afal ondoren, Tapia eta Leturiarekin dantzaldia izanen da

dago. Animatu eta eman izena Kontseju tabernan. Gogoratu, zomorro gabe ez dela festarik izaten, eta beraz, zahar eta gazte anima zaitzte!

Telefonorik gabe herrian berriz ere

Telefonoaren kablea lapurtuta telefonorik gabe egon zen herria urtaril hasieran pare bat egunez. Lehengo urtean ere izan ziren kable lapurretak eta badirudi bidea ikasia dutela lapurrek. Gainera, Aranon lapurta eta foralak etorri orduko, Gipuzkoan barreraihes eginak izaten dira gaizkileak. Herriarrak nahiko haserre daude administratiboki ditugun honelako arazoekin.



ARGAZKIA: MAIDER ANSA

Zomorroak dira dudarik gabe karnabaletan umorea jartzen dutenak.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Iruritako finalaurrekorako sailkatu da Legarreta

Urtarrilaren 24an ekin zion Xabier Legarretak aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketari, Sunbilla jokatu zen bigarren azken-laurdenean eta nagusitasunez eskuratu zuen lehen postua (414,5). Bigarren sailkatu zen Iñigo Ibarri 29,5 puntuko aldea atera zion (385 puntu lortu zituen Ibarri). Sunbilla lehenengoa izanda, zuzenean sailkatu da otsailaren 27an Iruritan jokatuko den finalaurrekorako.

Hernaniko Bertso Eskolan hasi zuen Legarretak bertsolari bezala bere ibilbidea eta Nafarroakoan finalean ibili da urte askotan. 2000. urtean, berriz, txapeldunordea izan zen. Zorte on!

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatuak

Telefonoa: 948 581 468
Mug: 630 354 815

Santiago, 59 3C
ELIZONDO

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA

Dolarea Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA: Iñigoa sotoa • LEKARIZ 948 492721 • 926 494337
LINDURRENBORDA: Nubaz sotoa • LESAKA 948 627212

Benta Berri jatetxea

urria arte larunbatetan irekia eta atsaldetan itxia
SUKALDARITZA TRADIZIONALA

ONDO PASA INAUTERIAKIN

T. 948 514 018 • Urumea • ARANO

Iritzi bloga

BERRIA

www.ttipi.net

LEITZA

UDALA → AURREKONTUA

3,6 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak 2010erako

Ibero ingurua erostea izanen da inbertsiorik nagusiena

TTIPI-TTAPA

Urte berriari begira, 3,6 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak. Horren barne, inbertsio nagusiena Ibero ingurua erostea izanen da. Inguru hau herriko soziedade batena da gaur egun, eta hori herriarena izatea nahi du Udalak.

Horrez gain, Ateka-beltza etxeko konpontzen ere joanen da aurrekontuko zati bat, eta hondakinak bi kamioi eta pabiloia erosten ere beste inbertsio bat eginen da.

Santa Ageda bezperan kopia kantuan

Urtero bezala, Santa Ageda bezpera kantuan ospatuko da. Os-

tegun honetan, hilak 4, 18:00etan plazan elkar- eta herrian barrena kantuan kalejira eginen da, musikari eta bertso-lariekin. Eta buelta egingo dakoan, Karrapean jan-edana izanen da.

Kiroldegirako laguntza

Azaroan bukatu ziren kiroldegiko obrak. 30.000 euro inguruko aurrekontua eduki zuten eta orain, berriz, zati bat subentzionatuko duela iragarri du Nafarroako Kirol Institutuak. 15.109,20 euroko dirulaguntza ematea onartu du.

Taxi lizentzien deialdia

Bi taxi lizentzia esleitzeko deialdia egin du Udalak eta interesatuek urtarilaren 25etik hasita, 20 eguneko epea izanen dute eskaintzako aurkezteko. Informazio gehiago jasotzeko udal idazkaritzara jo daiteke.



ARGAZKIAK: ASIER IMAZ

Giro ederrean inauteriak

Eguraldi txarrari aurpegi ona. Halaxe egin zuten herritarrek inauterietan eta giroak ez zuen hutsik egin. Etxez-etxeke eskea, atsaureen joan-etorriak, gurdia... Bertakoek ez ezik, kanpokoek ere gozatu zuten inauterietan, batez ere, asteburuan, jende asko hurbildu baitzen festa giro onaren bila.



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

Berria Txapelketako hurrengo aurkaria Hernani

Berria Txapelketako lehen kanporaketa gainditu eta lehia jarraituko dute Aurrerako pilotariak. Aurrera eta Usurbilgo pilotariak aurrez aurre izan ziren urtarilaren 22an Aginagan eta hiru partidetatik bi leitzarrek irabazi zituzten. Kadeteen mailan, Usurbilgo Juaristi eta Txurrukak 22-10 irabazi zieten Aurrerako Anartz Olano eta Xabier Jaunarenari. Jubeniletan, Aurrerako Mikel Onsalo eta Joxerra Aldaregiak 22-10 irabazi zieten Usurbilgo Mendizabal eta Galarragari. Eta nagusien mailan, Aurrerako Etxeberri eta Mikel Iriartek 22-19 irabazi zieten Usurbilgo Errasti eta Aranaldieri. Hurrengo kanporaketa Hernaniko taldearen aurka izanen da otsailaren bukaera aldera.

ABISUA IRAKURLEARI

ttipi-ttapa

Hurrengo egunotan TTIPI-TTAPArik telefono deia hartuko duzue. Harpidetzaren datuak eguneratu bidenabar, aldizkaria kostatzen denaren zati bat aurrerantzean norberak ordaintzea eskatzen da. Urtean 15euro

Informazio gehiago 945 633 438

GIZARTEA → ELKARTASUNA

Eguberrietan bildutako dirua Haitira eta Malira bidaliko da

405 euro bildu ziren etxez etxe Eguberrietako kantzak abestuz

Juana Mari SAIZAR

Eguberrietan etxez etxe Gabon kantzak abesten ibili ziren herriko haurrak, Maria, Jose eta Jesus haurtxoarekin batera, eta bertan bildutako dirua urtero haurrak babesteko edo apadrinatzeko erabiltzen bada ere, aurtengoan beste zerbaitetarako erabiliko da. Irabazitako diruaren zati bat Haitira bidaliko da, eta beste zati bat Maliko umezurtz etxe batera joango da. Guztira 405 euro lortu ziren.

HAURREN MERIENDA

Urtero bezala, kantari ibili ziren neska-mutikoen merienda egingo dute, eta horretarako hitzordua ostiral honetan, otsailak 5, egin dute. 17:30ean Pake Toki elkartearen bilduko dira.

Euskal Herriko Mus Txapelketa

Euskal Herriko II. Mus Txapelketa abian da dagoeneko, eta aurtengoan Areson egin da kanporaketetako bat, urtarrilaren 22an, hain zuzen. Pake Toki elkartearen egin zen eta sailkatutakoak Geno Telletxea eta Trini Miranda izan ziren.

Gisa berean, hurrengo egunean, urtarrilak 22, Pake Toki elkartearen urteroko mus txapelketari hasiera eman zitzaion. Hamar bikotek eman dute izena.

Arazorik ez Internetekin

Interneteko WiFi zerbitzua azkenean arazorik gabe dabilela dirudi, eta hau horrela dela-eta, zerbitzu honen tasa kobratzen hasiko da Udala, mantentzen eta konponketak ordaintzeko. Ordaindu beharreko prezioa 60 eurokoa da, eta BEZa gehitu behar zaio; beraz, denetara



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Joan dira inauteriak

Urtero bezala, ostiral arratsaldean eskolako haurrek eta gurasoek egiten duten herri bueltarekin hasi ziren inauterietako ospakizunak. Andaluziako Feria hartu zuten aurtengo gai nagusi bezala, eta sevillanak dantzatzeko ere ikasten aritu ziren horretarako. Beren trajeak eta karroza ere egin zituzten aurretik eskolako orduetan.

69,60euro izango dira. Udalaren dokumentuetan ageri denez, WiFi zerbitzua dutenei soilik kobratuko zaie prezio hau.

b
ehetik

Añorga-Ixiki, 14 behea
T. 943 368 781
671 073 888

www.behetik.com

Eskallera igotzea... ez da oztopo!



plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...

TTIPI-TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

- 510 ALEKO IRABAZLEAK**
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
Josu Goia | Bera
 - * KALOTXA LOTEA
Pili Altzuri | Lesaka
 - * PIRRITX ETA PORROTX
LIBURUA + DVD + POSTERRA
Maite Zelaleta | Igantzi
 - * IBAIZABAL 2 LIBURU
Aurea Arnal | Elizondo

ZORIONAK

* Hilabete bateko erpea
sariak biltzeko

ZOKKETAK

ttipi-txarteldun guzien artean
zozketatuko dira sari hauek

TTIPI-SASKIA

- TTIPI-TTAPAKO POLTSA
- PIRATAK ALTXORRAREN BILA JOKOA
- HIZKUNTZA SEKRETUAK
LIBURUA
- TXAPELA BURLIAN
KAMISETA
- PIRRITX ETA PORROTX
DVD
POSTERRA




**2 LIBURU
ELKAR**
www.elkar.com



**2 SARRERA
ARTIC
IZOTZ JAUREGIRA**
www.hieloartic.com



**LOTEA
KALOTXA
OPARIAK ETA
OSAGARRIAK**



**KAMISETA 1
ONIN ART**
www.oninart.com

DESKONTUAK

Denda hauetan eta aunitz gehiagotan!
ERABILI ZURE TXARTELA!

jaione tindategia
%10, 1261K gorako gaituan

FOTO MENA
%10 deskontua kopia digitaletan

kalotxa
%5, 1861K gorako gaituan

ostargi
%10, 3061K gorako gaituan

KATTALINGORRI
%10eko deskontua

HERRIZ HERRI → KARRIKEN IZENAK AZTERGAI

Karrikentzako izen berriak proposatu dituzte herri batzuek

Udalaren eskuetatik pasako da batzarreek proposatutakoa

Maite OTEIZA

Hamabortz herrieta-ko karrika izendegiak ber-ritzeko abian den ekime-
nak aitzinera segitzen du.
Batzarreetan ari dira izen-
ak proposatzen eta hori-
rietako batzuetan auke-
ratu dira dagoeneko ize-
nak. Batzarreek propo-
satutakoa, Udalak onar-
tu beharko du.

ELIZONDON

Urtarrilaren 16an egin-
dako batzarrean aukera-
tu ziren Elizondon airean
zeuden karrika eta toki-
en izenak. Ez zuen ba-
tzarreak interes handie-
girik piztu, 13 lagun bai-
no ez baitziren bildu. Eta
Xabi Torres Elizondoko
alkatearentzat, «pena» da
hori. «Bozketa ez egitea
ere planteatu zen, baina
deialdia egina zen eta he-
dabideetan ere zabaldua,
jendeak bazekien eta
azkenean egitea erabaki
zen».

Aitzineko hilabeteetan
egindako proposamenak
aintzat hartuz aukeratu
ziren izenak. «Toki izenek
lehenatasuna» eduki zu-
tela ere gaineratu digu
Torresek.

Elbetetik Etxarri alde-
rako 2,5 kilometroek San-
tiago Karrika izena edu-
ki dute orain arte, baina
eremu luzea dela kontu-
an hartuz eta zati horre-
tan etxeak eginen balira,
zenbakiekin arazorik ez
egoteko, Renault inguru-
tik Etxarri alderako zatia-
rentzat Datue izena pro-
posatu da, inguru horre-
tan dagoen jauregi zahar
baten izena hori delako.

Bertzalde, Paularena
inguruan, Beartzunera bi-
dean hiru gunere berezi di-
ra. Lehenbiziko gunea-
rentzat Urepel plaza pro-
posatu da; bigarrena Ai-
ta Donostiaren jarraipe-
na izanen litzateke eta hi-
rugarrena Plazaburua.
Maurizio eta Felix plaza
aldeko karrika batek Erla-



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Ahaztuen plaza izena proposatu du batzarreak Fantxike aitzineko plaza berriarentzat.

tegi izena hartuko luke.

Fantxike dendaren pa-
rean egin den plaza be-
rriarentzat Ahaztuen pla-
za izena planteatu du ba-
tzarreak. «Memoria histo-
riaz oroitzeko aukeratu
da izena», dio Torresek.

Herri sarrerako etxe
batean ageri den eta ga-
rai bateko ikurrak dituen
Elizondo-Valle de Baztan
plaka ere kendu eta gor-
de nahi du batzarreak,
eta horren ordez, *Elizon-
do-Baztan* paratu.

Etxeen zenbakien
inguruan herritarrek aur-
keztutako alegazioak ere
ontzat eman dira.

IRURITAN ERE EGINAK

Iruritan ere batzarrea
egin eta karriken ize-

nak gaurkotu eta berrien
kasuan izendatzeko pro-
posamenak egin ditu.

Horrela, Angel M^a Hu-
alde karrikak Hirubur ize-
na hartuko luke; Juan
Bautista Aleman karrikak
Tturriotz; Luis Gaztelu
Gaztelu izatera pasako
litzateke, garai batean, hi-
lerria dagoen lekuan gaz-
telu bat zegoelako; pla-
zatik Arraioz aldera, Zal-
dubi karrika eta plazatik
Elizondo alde-
rat Karrika
Nagu-
sia.

Aipatzekoa da, udale-
txean etxeren baten ize-
nik ez badute, hori jaki-
narazteko momentua de-
la. Hartara, herriko pla-
noetan agertuko da.

Gainerako herrietan
proposatu diren aldake-
ta hurrengo aleetan bil-
tzen saiatuko gara.

Otsailaren 15etik aurrera martxan!

Errentagarriago Hurbilago Erosoago Gehiago

Informazioa 948 01 01 31 Rural Kutxa eta Nafarroako Kutxaren bulegoetan

CLUB Más xti

Nafarroako denda txikiak zure fidelotasuna saritzeko elkartzen dira

Zure erosketengatik Gehiago ematen dizugu

Gehiago Zuregatik Kluba www.clubmasporti.com

Nafarroako Gobernua

FGN

NAFARRIARRO RURAL KUTXA

can+

2012 |

BAZTAN

BATZAR NAGUSIAK → ORDENANTZA BERRIAK

Ordenantza berrien inguruan alegazioak aurkezteko epea zabalik dago

Ilbeltzaren 18az geroztik hiru hilabeteko epea dago

TTIPI-TTAPA

Ordenantza, Lur Esparru eta Paramentu berrien inguruan alegazioak aurkeztu nahi dituenak hiru hilabeteko epea izanen du horretarako. Urriaren 28an onartu zuen Batzar Nagusiak hasierako dokumentua –abstentzio bakarria izan zen, Xabi Torres Elizondoko alkatearena– eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ilbeltzaren 18an argitaratu zen. Egun horretatik hasita 90 eguneko epea izanen da alegazioetarako. Dokumentu hau osorik www.baztan.es web orrialdean eskura daiteke.

AZKEN HITZA BATZAR NAGUSIAK

Jendaurreko epea akituta, Batzar Nagusietako batzorde batek aztertu eta sailkatu egingen ditu alegazioak eta

behin hori egindakoa, Batzar Nagusitik pasako dira onartutakoak zein diren eta zein ez diren zehazteko.

Larre erretzeko auzolan-tailerra Elizondon

Erreketei buruz auzo-

lan-tailerra egingen da larunbat honetan, otsailak 6, Elizondon, Herriko Etxeak antolatuta. 10:00etan Herri-

ko Etxean larre erretzei buruz hitzaldia eskainiko dute Eprif taldeko batek, basozain batek eta suhiltzaile batek.

Hitzaldiaren ondotik, Bagordi aldera irteera egingen da landaketa bat ikustera eta han ere azalpenak emanen dira. Gosaria izanen da gero plater tiroketaren elkartean eta ondotik, larre erretze bat egingen da auzolanean Bagordin. Xabi Torres Elizondoko alkateak tailerra irekia izanen dela jakinarazi du eta jendeari joateko gonbitea luzatu dio.



ARGAZKIA: ONDIKOL

San Anton Eguneko sari nagusia Haitira

Jende andana elkartu zen urtarilaren 17an Elizondon, San Anton Egunaren harira. Eta ohi bezala, egun horretan egin zen Francisco Joakin Iriarte zahar-etxeari laguntzeko zozketa, dagoeneko 133 urte bete dituen. Lehenbiziko saria, aretze eder bat, Fermin Gartzia-Matari egokitu zitzaion. Baina saldu eta diru hori Haitira bidaliko duela iragarri zuen. Bigarren saria, zerria, Martxe Urrutia elizondarrari tokatu zitzaion; hirugarren saria, bi bildots, Almandozko alkatea den Luis Roldanek zuen, baina bidaia batera atera behar izan zuen Ana Mari Marin margolari ezagunarentzako erosia zuen. Laugarren saria, urdaiazpiko bat, ez zen egun berean atera. Erratzun, Santiago Dendarietan dendan saldua zen. Elizondon ez ezik, Erratzun ere egun berezia izaten da San Anton Eguna, batez ere, emakumezkoentzat, urtero hainbat emakume elkartzen baitira afaltzera.

Almandozko frontoirako dirulaguntza

Kirolaren Nafarroako Institutuak kirol instalazioak eraiki eta zaharberritzeko subentzioak eman ditu eta zati bat Almandozko frontoiko lanetarako izanen da. Zehazki, 120.000 euro iragarri ditu. Kasu honetan, obrak akitzean daude.



igogailuen instalazioa
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardurarik gabe, zure igogailu instalatzen dizugu

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 inufoa · irabeiko monastegia 62, 4ºC · 31011

MENDIALDE
www.mendialdea.com



T: 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

MENDI ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO



ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

HERRI KIROLAK → BASABURUA TALDIKE BILA

Herri Kirol Jolasetan aritzeko deia egin du Basaburua taldeak

Anizen egiten dituzte entrenamenduak ortziralero

bakarrik-, eta otsailaren 28tik martxoaren 28ra, asteburuetan jokatuko dira jardunaldiak. Autobusa ere izaten

da jardunaldietara joateko.

Basaburuakoek ortziraletan egiten dituzte entrenamenduak Anizen,

20:00etan hasita, eta interesatuak harat joan daitezke, edo bertzela telefono honetara deitu: 659 779892.



Desagertua

Fernando IRIGOIEN

Bere bila dabilta senide eta lagunak

Fernando Irigoien Agirre lekaroztarrak desagertua dago joan den abenduaren 30az geroztik eta familia-koek eta lagunek bilatzeko laguntza eskatu dute. 60 urte inguru ditu Fernandok eta 1,75 eta 1,80 metro artean neurtzen du eta gorpuzkera azkarrekoa da. Iruñeko Biurdana institutuan egiten du lan eta Ezkaba mendira joan ohi da ibiltzera. Bere berri duenak 689 648320 edo 628 153940ra dei dezake.

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan hutsik egin gabe taldeak atera ditu Basaburuak Nafarroako Herri Kirol Jolasetan, kimu, haur zein kadeteen mailan. Eta maila ona ematen asmatu du gainera. Aurten, baina, badirudi arazoak daudela taldeak osatzeko. Eta horregatik, deialdi berezia egin diete Basaburua taldeko entrenatzaileek gaztetxoei, 11 eta 16 urte bitartekoei, zehazki.

Proba konbinatueta eta sokatiran aritzeko izanen litzateke –kimuen mailan, 11-12 urtekoetan, konbinatueta



UTZITAKO ARGAZKIA

'Gehiago Zuregatik Kluba' Elizondon

Saltoki haundien aitzinean, erosleen fidelitasuna saritzeko Nafarroako merkataritza itikiek abian paratu duten 'Gehiago Zuregatik Kluba' ekimena Elizondora ailegatu zen joan den hilabetearen erdialdera. Karrika animazioa, musika eta argazkian ageri den bi pisuko autobus hau ekarri zituen berekin, eta jendearen arreta bereganatu zuen.



BAZTAN
IKASTOLA
UDAL ESKOLA PUBLIKOA

Mendinueta, z/g | 31700 ELIZONDO

T. 948 45 24 48 • 948 58 02 56 | baztan@ikastola.net | www.baztanikastola.com



BAZTAN BAILEKO UDALA

URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Aurten lehenbiziko aldiz inauterietan karpa paratuko dute gazteek plazan

Otsailaren 12ko haurren desfilearekin hasiko dira

TTIPI-TTAPA

Bertze herri aunitzetan bezala, Urdazubin ere laster ailegatuko da mozorro besta. Inauterietako egun ofizialekin bat eginez, otsaileko bigarren asteburuan hasiko dira.

Dena den, otsailaren 12a, ortzirala, haurrentzako egun handia izanen da. Mozorroak jauntzi eta trikitalari eta panderojoleen laguntzarekin kalejira egingen da. Kalejira hau eskolak antolatzen du, eta beraz, Zugarramurdiko neska-mutikoen batera ibiltzen dira urdazubiarrak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Zugarramurdiko neska-mutikoen batera joan den urtean egindako kalejira.

GAZTEAK IGANDETIK AITZINERA

Larunbata atsedenerako eguna izan ondotik, gazteek igandean, otsailak 14, hasiko dituzte inauteriak, eta as-

telehenean eta asteartean emanen diete segida.

Igandean Dantxarriean barna ibiliko dira etxez-etxe, Modesto akordeolariarekin. As-

telehen eta asteartean, berriz, otsailak 15 eta 16, 10:00etarako egin dute hitzordua gazteek eta herriko gainerako auzoetan ibiliko dira eskean.

KARPA PLAZAN

Aipatzeako da, aurten berrikuntza bat izanen dutela inauteriek. Izan ere, gazteek plazan karpa bat paratuko dute ostatu batekin eta inauterietako egun guztietan hor egonen da.

Udal ordezkariak Fiturren

Urdazubik ere izan zuen ordezkaritza urtarilaren 20tik 24ra Madrilen egin zen Fitur Turismoaren Nazioarteko Azokaren 30. edizioan. Udaletik hiru lagun joan ziren: Santiago Villares alkatea, Juan Ignacio Arzo alkatordea eta Jose Luis Vidaurre Dantxarrieaneko komertzianteen Elkarteak lehendakaria.

Faustino ETXABE tailerrak
Autoen konponketa
INAUTERI ON BATZUK PASA!!
Tf. 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

Ongi pasa Inauteriak!

SANTIAGO VILLARES s.l.

GARRAIOAK

Luzerna-pentsu eta forrajearen
SALMENTA eta EXPORTAZIOA

~
Lastoa
~
Luzerna

Tel. 948 599 134 Mug. 609 415 777
Fax. 948 599 156
(URDAZUBI)
santivillares@terra.es

ARMUA JATETxea

T. 948 599 131
Zugarramurdi errep. 30a
URDAZUBI

MONTXO OSTATUA

Dantxarrietatik
2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • URDAZUBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

HERRIKO
ETXEN
EDXNTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE

Tf. 0559342519
Mozan eta Wintropue
SARA

Javier Manterola

Tekniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Gazteak Elbarrun, Ihalar, Istilart eta Lehenbizkaitik pasako dira ihauterietan

Larunbatean lau auzo horietan barna ibiliko dira

Xan HARRIAGUE

Heldu den otsailaren 13 eta 14an ospatuko dira ihauteriak. Urtero bezala, larunbatearekin, herriko gazteak etxe-etxe ibiliko dira eskean. Elbarrunetaik abiatuko dira eta Ihalar eta Istilarten barna Lehenbizkaitira joanen dira iluntzean herriko plazan finitzeko. Han festa giroan segituko dute Herriko Etxeko Edantegiko Maixan eta Veroniquek ekarraziko duten musika jartzailearekin.

Biharamun goizean zanpantzarren auzia eginen da meztatik lekora eta bere pekatu guztiak barkatuak izan daitezzen plazan erreko. Ondotik, herri bazkaria izanen da Omordian Olhain ikastolak antolatuturik. Txartelak Herriko Etxeko Edantegian erosi behar dira.

OHARRA

Ihauterietako igandean Omordian eginen den herri bazkarirako txartelak Herriko Etxeko Edantegian daude salgai.

Bertsu afaria giro onean

Aurten ere ederki joan da, Olhain ikastolak eta gaztetxeak, Herriko Etxearen laguntzarekin antolatatu duten bertsu afaria.

Joan den urtean baino jende gutxiago bildu zen, 50 bat lagun inguru. Hastapenean giro nahiko hotza izan zen, baina Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia eta Beñat Gaztelumendi bertso-

lariak kantatzen joan ahala, giroa berotuz joan zen eta irri ederrak aditu ziren. Karlos Aizpurua aritu zen gaia ematen eta ederki tartekatuz zituen herriko kontuak, kanpokoak eta jo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Marrazki lehiaketako sariak banatu ditu Turismo Bulegoak

Olentzero eta Bizarzuriri buruzko marrazki lehiaketan 24 sari banatu ditu Turismo Bulegoak. Irudi hau Idoia Indorena da. CM1 mailan irabazle izan da Oihana Alli eta Mattin Iribarrenekin batera. CM2 mailan Maika Violet, Fadrine Margarie eta Eneko Fagoagak irabazi dute, CE2 mailan, berriz, Lena Agerre, Sara Olaziregi eta Jona Violetek, eta CE1 mailan, Imanol Indo, Tony Landrin eta Andoni Ibarrek.

Tripotx jatea otsailaren 13an

Herriko Etxeak tripotx jatea ordainduko die erretretan diren herritar guzietan otsailaren 13an. Interesatuak izenak heldu den astelehena baino lehen eman behar dira Herriko Etxera deituz.

Beñat Errandonea Dakarren irabazle

Beñat Errandoneak Hego Ameriketara jokatzen den Dakarra irabazi du bere mailan. Sailkapen orokorrari begira, berriz, 16. finitu du BMW, Mitsubishi, Volkswagen eta Hummer bezalako marka handien ondotik. Xehetasun gehiago 53. orrialdean aurkituko dituzue.





Kulturkari
diseinugrafikoopublikoak

- Logotipoen diseinua
- Targeten diseinua
- Triptikoak, wiletsoak, karpetak, gutunazalak, fakturak...
- Kartelak, egutegiak
- Irudi korporatiboa

Eskatuz aurrekontua konpromisoarik gabe!

Anabazeta, 12 - 31761 Euzar - Tx. 948 435 438 - kulturkari@ttipi.net

SENPERE

HERIOTZA

Jean Petriat dantzari gaztearen heriotzak samin haundia sortu du herrian

Bat-batean zendu da 25 urteko gaztea

Franck DOLOSOR

Gazteria triste dago berriz ere Jean Petriat lagunaren heriotzagatik. 25 urte bete berriak zituene mutikoa ongi ezagutua zen herrian, bereziki Ziricolatz euskal dantza taldeko kidea baitzen. Heriotzak bat-batean eraman du.

Bere bi arreba bezala, Korean sortu zen Jean, eta ttiki-ttikiak zirelarik etorri ziren Senperera Petriat familiak ongi-etorria egin baitziren. Dударik gabe, integrazioaren adibiderik onena da ongi ezagutua den familia horrena.

Jean dantzari biziki fina zen eta aurrekua da gehien maite zuen dantza. Maiz egin izan du dantza hori herriko ekitaldi nagusietan eta inaugurazioetan. Ez du gu berehala ahantziko bere parte-hartzea

2009ko urrian Ziricolatz taldeak ospatu zuen bestan. Bat-batean aspaldiko dantzariekin zombait dantzak eman ziren eta hantxe zen lehen lerroan. Oinez gain, eskuekin ere artesa zen eta zurgintza ikasi zuen egurra lantzea biziki gustukoa baitzuen. Bere burasoak ere biziki ezagunak dira herriko bizian, elkarteetan eta parrokiaren bizian parte hartzen baitute aspalditik. Penan gelditu den familiari eta adiskideei dolumin bizienak.

1609 elkarte

Ustezko sorginen kontrako auzien 400. urtemugaren inguruko ospakizunek aitzinera segitzen dute. Otsailaren 13an, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko zortzi finalistek kantatuko dute Baionako antzokian. Bertzalde, otsailaren 27an, Nestor Bastretxea zizelkariak prestatu duen obraren estrena egingen da.

Konpostagailuak

Senpereko etxeen laurdenak konpostagailu bat du Bizi Garbiaren arabera. Badira 10 urte, konpostagailuak urririk banatzen dituela Bizi Garbiak eta orotarat 2 400 plantatu dituzte Urdazuriko baratzeetan. Iaz, 178 konpostagailu banatu zituzten.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Jean Petriat dantzaria, berriki zendu den gaztea.

Bidaiatzeak adinik ez duelako

Adin Ederra elkarteak ateraldiak egingen ditu aurten ere hilabete guziz. Ondoko egunean, elkarteko 136 kide-

ek jakinen dute aurten go programa.

60 urte baino gehiago dutenek parada paregabea dute elgarrekin ibiltzeko eta gure bazterrak ezagutzeko.

Senpertarrak karrikan



15 000 lagun bildu ziren Hendaian urtarilaren 23an Abiada Haundiko Treinbide berriaren proiektuaren kontra, hauen artean senpertar andana. 70 traktorek hasi zuten ibilaldia, hauen artean gure herrikoak, eta ondotik ibiliziren laborariak, saltzaileak edo herritar soilak. Denek gauza bera galde zuten: trein lasterra oraingo burdinbidetik pasatzea Baiona eta Biriatu artean. Lapurdi, eta Senpereko oiha zeharka lezaken linea berririk ez dute nahi. Herritarren ondoan, kalteuak izanen diren herri guzietako eta sentsibilitate anitzeko hautetsiek mezu bera errepikatu zuten. Hautetsien multzoan Senpereko Herriko Etxeko ordezkariak agertu ziren, gehiengoak eta abertzale zerrendakoak. Senpertar hauek mobilizaturik segituko dute berriki finkatu den kilometra batetako zabalera duen kolidorea hertsituko baita urte hondarrean, eta gisa

huntsan 500 metrako eremua marraztuko da. Hendaia manifestaldia aintzina, Euskal Herria, Frantzia, Espainia eta Italiako zombait taldek adierazpen bateratua izenpetu zuten. Beren usitez, ATHk hondamendia bertzerik ez du ekarriko, eta horren berri eman nahi diete orain Europako agintarieri.

Langileak ere karrikarat

2 000 lagunek parte hartu zuten urtarilaren 21ean Baionan iragan zen funtzio publikoaren aldeko manifestaldian eta senpertar batzuk agertu ziren hantxe. Kezkatuak dira ez baitute batere begi onez ikusten Frantziako Gobernuaren politika. Azken urteetan 100 000 lanpostu desagertu dira erretiroa hartzen dutenen erdia ez baitute gehiago ordezkutzen. Mobilizazio horrek eragin handia izan zuen eskola publikoetan bereziki, %70 hetsiak egon baitziren.

m
bentamiguel
denda, jatebrea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukerari

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdatetgia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Haizea Arenas Etxeberria, Arantzakoa, urtarrilaren 10ean.
Izadi Mihura Habans, Elizondokoa, urtarrilaren 10ean.
Iñaki Zabaleta Urkola, Leitzakoa, urtarrilaren 5ean.
Iria Amundarain Garrido, Leitzakoa, urtarrilaren 14an.
Aloña Aioroa Goñi, Iturengoa, urtarrilaren 13an.
Jon Abuin Matos, Donamarikoa, urtarrilaren 3an.
Eki Pradere, Sarakoa, urtarrilaren 15ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Emilia Loiarte Loiarte, Aranokoa, abenduaren 31n, 89 urte.
Antonio Claver Apezetxea, Aranokoa, urtarrilaren 18an, 80 urte.
Rosa Sarratea Kranzle, Doneztebekoa, urtarrilaren 12an, 87 urte.
Martin Sagastibelza Zabaleta, Leitzakoa, urtarrilaren 11n, 89 urte.
M^a Dolores Martinez Gartzia, Lesakakoa, urtarrilaren 13an.
Purificacion Eltzaurdia Alzuguren, Berakoa, urtarrilaren 15ean, 83 urte.
M^a Cecilia Zabaleta Zabaleta, Leitzakoa, urtarrilaren 20an, 77 urte.
M^a Dolores Zabaleta Zabaleta, Leitzakoa, urtarrilaren 17an, 81 urte.
Carmen Azkarraga Sarratea, Elizondokoa, urtarrilaren 21ean, 88 urte.
Luis Juanaberria Franzesena, Elizondokoa, urtarrilaren 22an, 91 urte.
Sor Antonia Zunzarren Arriola, Elizondokoa, urtarrilaren 22an, 94 urte.
Jose Ezkurra Indakoetxea, Zubieta-koa, urtarrilaren 21ean, 93 urte.



Jose Antonio IRIARTE IBARRA

Sunbillan hil zen, 2010eko urtarrilaren 7an,
65 urte zituela

Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.

EMAZTEA, ALABA
ETA FAMILIA



Jesus ANZIZAR ARRUPEA

Donezteben hil zen, 2010eko urtarrilaren 10ean,
74 urte zituela

Egun gogor hauetan
gure ondoan izan zareten
eta gure saminarekin
bat egin duzuen guziei
mila esker.

EMAZTEA, SEME-ALABAK,
BILOBAK ETA FAMILIA



Rufina IRIARTE MITXELENA

Sunbillan, 2007ko otsailaren 25ean

III. URTEURRENA

Umorez eta alaitsu
ibiltzen ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztez in horiek
beti geldituko dira gurekin.

ZURE SEME-ALABA ETA ILOBAK

Gure eskualdean afizio haundirik ez duen kirola aukeratu du Iker Mariezkurrenak (Sunbilla, 1982): arrauna. Hondarribiko bigarren taldean ari da joan den urteaz

geroztik, ARC mailan, eta kirol gogorra izanagatik, gustura ari dela aitortu digu. Fisikoki sasoiaren dagoela adierazi digu, baina itsasoan ibiltzen oraindik ikasi behar

omen du. Bertze hiru lesakar ere baditu taldean, eta erran diotenez, lauzpabortz neska lesakar ere hastekoak omen dira arraunean.

Iker MARIEZKURRENA | Sunbillako arraunlaria

«Arraunean aritzea uste baino kirol gogorragoa da, baina polita da»

G. PIKABEA | SUNBILLA

Mendien artean jaio zen, eta mendien artean bizi da. Baina halere, arrauna aukeratu du Iker Mariezkurrena sunbilla-rak. Ttiki-ttikitatik egin izan du kirola, eta gaztetxoa zela, «futbolearen eta batez ere bizikletan» ibiltzen zen. Halere, 16 urterekin «dena» utzi eta urte batzuetan «deus» egin gabe egon zen, 26 urterekin berriz hasi zen arte. Eta orain, joan den urteaz geroztik, Hondarribiko arraunlarien taldean ari da, ARC ligan. Bigarren mailan, beraz.

Orioko lagun baten bidez hasi zen arraunean Mariezkurrena: «betidanik gustatu izan zait, eta Orioko lagun batek animatu zidan». Eta halaxe egin zuen: «probatu eta gustatu». Geroztik, «engantxatua» dagoela aitortu digu.

Kirol gogorra aukeratu duela badaki. Izan ere, liga ekainean hasten den arren, azaroan hasten dira entrenamenduekin. Asteko zazpi egunetan entrenatzen dute gainera: «astelehen, asteazken eta ortziraletan pesak egiten ditugu, astearte eta ortzegunetan ergometroa eta larunbat eta igandetan uretara ateratzen gara». Maila nagusian edo ARC ligan ari diren arraunlarietara batera entrenatzen dute, denak ere, presta-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Iker Mariezkurrena joan den urtean hasi zen arraunean.

tzailearen aginduetara. «Gehienbat ipurdian, eskuetan eta abdominalak egiten sufritzen» duela adierazi digu: «uste baino kirol gogorragoa da, baina polita da».

BURDIN AUNITZ ETA BESTA GUTTI

Elikadura ere zaindu behar izaten dute: «burdina igotzeko bitamina aunitz ematen dizkigute», azpimarratu du. Arraunean hasita pisuan izandako beherakadaz ere ez da atzendu: «90

ENTRENAMENDUAK
«Astelehen, asteazken eta ortziraletan pesak egiten ditugu, astearte eta ortzegunetan ergometroa eta larunbat eta igandetan uretara ateratzen gara»

kilorekin hasi nintzen, eta hamar kilo galdu nituen berehala. Joan den urtean 79 kilorekin egondu nintzen, inoiz eduki dudana pisurik baxuena».

Elikaduraz gain, beste ere alde batera utzi behar izan du Sunbillako gazteak: «irailean akitzen da denboraldia eta irailetik azarora, edo gehienez ere urtarrilera bitartean egiten ahal dugu beste. Eta urtarriletik ekainera Aste Santuan, eta gutti gehiagotan». Dena den, «gustura» dagoela

erran digu, nahiz eta aitortu «lehenago hagitz bestazalea» zela. Noizean behin, astean egun bat ere libratzen dutela gaineratu digu.

ONENA ETA OKERRENA

Estropadei buruz galdetuta, «ikaragarriak» direla nabarmendu digu: «20 minutu izaten dira, baina atope ibili behar da eta leher eginak akitzen dugu». Pesak eta abdominalak egitea ere ez du gustuko, baina beharrezkoa omen da arraunean ibiltzeko: «etzanda aunitz jarri behar izaten da eta abdominalak aunitz landu behar dira». Gogorrena, berriz, itsasoan ibiltzea omen da, «batez ere, olatuak daudenean. Trainera mugitu egiten da eta palekin asmatzea zaila da».

Sasoiko ikusten du bere burua, eta bere irudiko, «joan den urtean baino hobeki» dago. Baina oraindik ba omen du non ikasia: «itsasoan ibiltzen ikasi behar dut», erran digu. Teknika eta sasoiak behar omen ditu arraunlari on batek, eta ezaugarri horiek lortzeko eta maila nagusira igotzeko itxaropenik galduta gabe, lanean segitzeko asmoa du Mariezkurrenak. Eta ametsa, berriz, arraunlari gehienena: «Kontxako Bandera irabaztea».

SOKATIRA → EUSKAL HERRIKO GOMA GAINEKO TXAPELKETA

560 eta 500 kilokoen bigarren saioak otsailaren 13an Elizondon jokatuko dira

Gizonezkoetan zazpi talde ariko dira eta lau emakumeetan

TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Urtarril hasieraz gerroztik abian diren Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketak aitzinera segitzen dute. Gizonezkoak lau kategoriatan ari dira -680, 640, 600 eta 560- eta emakumezkoak, berriz, bitan: 540 eta 500 kilokoan. Tartean dira Amaiurko gizonezkoak eta Lesakako Beti Gazteko neskek.

GIZONEZKOAK

680 kiloko lehia egun bakarrean erabaki zen, urtarrilaren 9an, eta Abadiño izan zen txapeladun. **Amaiurko** taldea azpitxapeladun izan zen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Amaiurko taldea joan den urtean, 560 kiloko kategoriako kanporaketa batean. Elizondon ere maila horretan neurtuko dituzte indarrak.

600 kiloko txapelketa urtarrilaren 30ean akitzekoa zen, baina lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabe zegoen emaitza. Zazpi talde aritu dira kategorian honetan: Ñapurak (Ezpeleta, Lapurdi), Berriozar (Nafarroa), Sokarri (Arrigorriaga, Biz-

kaia), Barrundia (Agu-rain, Araba), **Amaiur** eta Abadiño A eta B (Bizkaia).

640 kiloko lehia joan den igandean eman zioten hasiera. Lau dira maila honetan ari direnak -Ibarra (Gipuzkoa), Barrundia, **Amaiur** eta Abadiño-

Kategoria honetako bigarren eta azken jardunaldia, berriz, otsailaren 14an jokatuko dute Zerberion (Blzkaia).

560 kilokoetan, larunbat honetan, otsailak 6, hasiko dira Ezpeletan (Lapurdi) eta otsailaren 13an, larunbata, **Elizondon** egingen dute

bigarrena. 17:00etan hasiko da saioa. Azken jardunaldia otsailaren 20an egingen da Arrigorriagan. Kategoria honetan sei talde ari dira: Ñapurak, Berriozar, Sokarri, Barrundia, **Amaiur** eta Abadiño.

EMAKUMEZKOAK

Emakumezkoetan ere, eskualdeko ordezkari bakarra da **Beti Gazterena**. Lesakako taldearekin batera, Badaiotz (Gasteiz, Araba), Ibarra (Gipuzkoa) eta Sakana (Nafarroa) dira parte-hartzaileak.

540 kiloko kategorian joan den larunbatean erabakitzekoa zen Aramaion (Araba).

500 kiloko lehia, bertalalde, larunbat honetan hasiko da Ezpeletan, eta bigarren jardunaldia Elizondon jokatu da. Eta azkena Arrigorriagan.

AUTOAK → RALLYAK NAZIOARTEAN

Dakar Argentina-Txile Rallyan 16. izan da Beñat Errandonea saratarra

Abiatu ziren 134 autoetatik 57 ailegatu ziren helmugara

TTIPI-TTAPA | SARA

Bi asteren ondotik, urtarrilaren 16an bukatu zen Bolivarren, Buenos Aires probintzia

barnealdean, 2010 Dakar Argentina Txile Rallya. Bizikletak, *quad*ak, autoak eta kamioiak atera ziren eta gidarian artean han izan zen Beñat Errandonea (Sara, 1961), Jean-Pierre Garcin lagun zuela. Auto lasterketan atera zen, eta www.euskalkultura.com atariak jakina-

razi duenez, 16.a izan zen sailkapen nagusi-an. Aipatzekoa da, 134 autok hasi zutela erronka urtarrilaren hasieran eta 57k bakarrik bukatu zutela.

323 zenbakiarekin, Buggy SMG V8 autoarekin atera zen Sarakoa eta parte-hartzea izan da bere helburua. Erran-



ARGAZKIA: WWW.EUSKALKULTURA.COM

Errandonea eta Garcin bere kidea agurtzen, Buenos Airesera ailegatutakoan.

doneak aipatu webgurean dioenez, «lasterketa hauetan gehien gustatzen zaidana ezustekoa da: inoiz ez dakizu zer gertatuko den,

inoiz ez da berdina». Gustura gelditu da egingdako lanarekin.

2007ko edizioan, bertalalde, 12. postua eskuratu zuen.

otsailak 5-19

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



ELIZONDO | 2010.02.20

Berri Txarrak taldea izanen da Lur dantzalekuan

Berri Txarrak taldeak kontzertua eskainiko du gauerditik aitzinera Lur dantzalekuan. Sarrerak: 12 euro aitzinetik eta 15 euro takilan.

Txapelketak



BERA | 2010.02.13

Gure Txokoaren mus txapelketa azkarrean sari ederrak

Iamotenean txapeldun suertatzen den bikoteak 400 euro eta txapela eskuratuko ditu; bigarrenak eta hirugarrenak afariak, Martikoko loteak laugarrenak...

Zinema



LEITZA | 2010.02.05/07

Woody Allen-en azken filma zineman ostiral eta igandean

«Si la cosa funciona» Woody Allen handiaren azken filma ikusgai izanen da zineman, ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean. Sarrera: 6 euro.

LESAKA

Zaku-zarrak, Goitarrak, Fraindarrak, karrozak

Otsailaren 11, 14, 15 eta 16an inauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

NARBARTE

Otorduz otordu

Otsailaren 12tik 14ra inauteriak. Xehetasunak 23. orrian.

SARA

Gazteak auzoz-auzo

Otsailaren 13 eta 14an inauteriak. Xehetasunak 49. orrian.

URDAZUBI

Gazteak etxez-etxe

Otsailaren 12, 14, 15 eta 16an inauteriak. Xehetasunak 48. orrian.

URROTZ

Eskea eta afariak

Otsailaren 5 eta 6an inauteriak. Xehetasunak 19. orrian.

Bertsoak

GARES

Finalurrekoak erabakitze saioa

Otsailaren 6an Garesko udaletxean ariko dira Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe, Alazne Untxalo, Xabier Terros, Estitxu Arozena eta loar Tainta, Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen faseko hondar saioan. Finalurreko protagonistak bertan erabakiko dira.

BAIONA

Sorginen kontrako auziak 400 urte

Otsailaren 13an Baionako Antzokian ariko dira Euskal Herriko txapelketako zortzi finalistak: Maia-

Erakusketak

IRURITA

Xabier Landaren argazkiak

Otsailaren 14ra bitartean Xabier Landa argazkilariaren *Pilota-ria eta bere ingurua* argazki erakusketa ikusgai izanen da Olari jatetxean.

LEGASA

Herriko argazki zaharren erakusketa

Otsailean herriko argazki zaharrekin erakusketa eginen da.

Kontzertuak

ELIZONDO

Berri Txarrak Lur dantzalekuan

Otsailaren 20an Berri Txarrak taldeak kontzertua eskainiko du gauerditik aitzinera Lur dantzalekuan. Sarrerak: 12 euro aitzinetik eta 15 euro takilan.

Inauteriak

ARANO

Suro auzoan hasita

Otsailaren 6an inauteriak. Xehetasunak 41. orrian.

ARANTZA

Mozorro Xurien besta

Otsailaren 4, 5 eta 6an inauteriak. Xehetasun gehiago erdiko gehigarrian eta 14. orrian.

BERA

Inudeak eta Artzaiak eta Kaldereroak

Otsailaren 6an aterako dira Kaldereroak. Otsailaren 10etik 15era inauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

DONEZTEBE

Eskea eta desfilea

Otsailaren 11, 12 eta 13an. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

ELIZONDO

Mozorro besta asteburuan

Otsailaren 12 eta 13an ospatuko dira. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

ETXALAR

Ttikien eta handien inauteriak

Otsailaren 11, 15 eta 16an ospatuko dira. Xehetasunak 13. orrian.

GOIZUETA

Zagidantza, mozorroak eta gehiago

Otsailaren 14, 15, 16 eta 20an inauteriak. Xehetasunak 40. orrialdean.

IGANTZI

Etxez-etxe eskea

Otsailaren 5 eta 6an inauteriak. Xehetasunak 15. orrian.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Inauterietako giroa herriz herri

Sunbillako karrozak ikusi eta Aurtiz, Ituren eta Zubieta aldeko joare soinuak itzalita, inauteri data "ofizialen" txanda da. Zakozarrak, Jantzilo, inude eta artzaiak, mozorroak, kaldereroak, zagidantza... hainbat pertsonai, dantza eta mozorro ikusteko modua izanen da egunotan herriz herri inauteri giro ero horretan murgilduz gero. Bada aukera!



len Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Sutrai Kolina, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi.

Ospakizunak

ETXALAR

Arkupeko herriko bazkideen besta

Otsailaren 7an ospatuko da. Xehetasunak 13. orrian.

SARA

Tripotx jatea

Otsailaren 13an Herriko Etxean. Interesatuek astelehena baino lehen eman behar dute izena.

Txapelketak

BERA

Gure Txokoako mus txapelketa

Otsailaren 13an la-motenean jokatu da, 16:00etatik aitzinera. Izen-ematea 15:00etan.

Mendi ateraldiak

BERA

Larun Ttikiren ateraldiak

Otsailaren 7an Labiagarat aterako dira Larun Ttiki mendi taldekoak. 09:30ean abiatu lamoteneatik eta Otsaindaraino kotxez joanen dira.

Zinema

LEITZA


Ostiral eta igandetan

Otsailaren 5 eta 7an Woody Allen-en *Si la cosa funciona* filmea ikusgai, ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Desira plazer 68-08

ZENBAIT EGILE

Txalaparte, 2010

Igor Estankonak, Edorta Jimenezek eta Josune Muñozek 1968tik gaur egun arte gurean idatzi den poesia arakatu dute erotismo bila eta Txalaparta argitaletxeak argitaratu du antologia, *Literotura sailaren barrenean*. Aurreiritzi eta uste guztien kontra, ez da makala aurkitu duten altxorra. Jimenezen hitzetan: «Poema guztien artean lurralde bat eratzen da, euskal emakume eta gizonen erotismoaren kontinentea. Hona hemen desira eta plazerren mapamundia. Mapa hau zeharkatuz, X handidun lekuak (liburuak, poemak, egileak...) aurkituko ditugu, Altxor-mapa». Jon Miranderen *Oianonerekin* hasi eta, urteka ordenaturik, Karmele Igartuaren *Malekoia*-rekin bukatzeraino, 70 idazle ingururen poemak bildu dituzte «desira eta plazerren mapamundi» honetan. «Batzuk oso xaloak eta zuriak irudituko zaizkio irakurleari, beste batzuk eskandalizatzen modukoak eta poema batzuk maitasun ia-ia jainkotiar bati buruzkoak izan daitezke», azaldu du Igor Estankonak.

Musika



Ametsei koloreak margotuz

ZEREN ZAI

GOR DISKAK, 2009

Hirugarren diskoa karrikaratu du Zeren Zai boskoteak, *Ametsei koloreak margotuz* izenburupean. Duela bost urte jaiotzen Zeren Zai eta 2005eko bukaeran zuzenean grabatutako *Gure uhartea* maketa plazaratu zuten. 2007an *Lur berrietara* kale-ratu zuten. Aurrekoa ez bezala, bigarren lana estudioan gorpuztu zuten. «Ametsei koloreak margotuz», hamar kantaz osatuta dago –denak euskaraz– eta, talde kideen arabera, orain arteko lan «osoena» da. Julen Arzelus amaratarrek abestu egiten du, eta Ion Izaga loiolatarrak (gitarra akustikoa eta elektrikoa), Iraitz Igartza egitarra (gitarra eta teklatuak), Javi Alberdi irundarra (bateria) eta Gabi Hernandez errenteriarra (baxua) ditu lagun. Aipatzekoa da diskoa Irungo Alberdi estudioetan grabatu eta Berako Mik Estudioetan nahastu eta masterizatu zela 2009ko udan. Diskoa Internetetik jaus-teko aukera ere eskaintzen dute www.zerenzai.info webgunean.

Internet




Gaztelania-euskara hiztegi mardula sarean

ehu.es.ehg/zehazki

Zehazki Ibon Sarasolak zuzendutako gaztelania-euskara hiztegi mardul bat da, 100.000 sarre-ratik gora dituen. Paperean 2005. urtean argitaratu zuen Alberdaniak, eta orain, EHUren eskutik, sarean dago kontsultagai. Hitz hasieren arabera bilatzen du tresnak, eta praktikoa suertatzen da horrela: «Camión» bilatuta, «camioneta» ere aurkitzen baitugu, eta, adieren artean kasu honetan, baita «estar como un camión: neska/mutil katxarroa izan», Zehazkiren arabera. Egileak aipatu duenez, «erdal sarrera-hitzen euskal ordainak egokitasunaren arabera paratu ditut, nire ustez egokiena dena aurrena jarriaz. Ene iritziz, aurren hori saiatu behar luke lehendabizi erabiltzaileak, eta, arrazoiren batengatik ez badu gogoko, hurrengora jo, gogokoena gertatzen zaiona aurkitu arte».

Nire aukera



Maider SUSPERREGI
Lesakako Barceó Bidaiak denda

Zinera joatea gustuko dut eta bidaiatzeko Afrika gustatzen zait

Bidaia agentziako lanaldia bukatzen duenean, «lagunartean trago bat hartu eta kontu kontari» aritzea gustatzen zaio Maiderri. Astebururako, berriz, «zinean pelikularen bat ikusi, erosketaren bat egin edo libururen bat irakurtzea» gustatzen zaio. «Kiroliek ez dut batere egiten», onartu du. Pelikula mota guztiak gustatzen zaizkio, «zientzia-fikzioak izan ezik, baina berriki 'Avatar' ikusi dut eta ikaragarri polita iruditu zait, nahiz eta fikzioa izan». Aktore bat aukeratzekotan, Morgan Freeman aipatu digu. Bidaia agentzian lan eginez, nahitaezko galdera: Bidaiatzekotan nora? «Bidaiatzeko edozein leku ona da, nora ez zait inporta, daukadan denboraren arabera aukeratzeko, baina niri Afrika gustatzen zait gehien, eta gero Ertamerika, Europa gutti ezagutzen dut». Prezioz ongi daudenak eta hurbil xamarrek daudenak aipatuta, «Turkia, Egipto, Kroazia...», aipatu dizkigu Maiderrek. «5-6 eguneko eskapada zoragarriak dira».

ETXEBIZITZAK
salgai

BERA. Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldia balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845/ elvetearra@aol.com.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta trastelekua. Berogailua. Dena berritua. Aparkaleku pribatua. ☎657 715243 / 657 799953.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

ARANTZA. Etxebizitza bere garajearekin salgai. ☎697 474042.

ETXALAR. Lizaietako parajea, zaharberritze-ko borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661 121540.

DONEZTEBE. Pisua salgai. 3 logela eta 2 komun. 156.000 euro. ☎607 978656.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

LESKA. Pisua errentan emateko. 3 logela eta berokuntzarekin. ☎689 170785 (17:00etatik 19:00etara).

BERA. Pisua errentan ematen da, Agerra auzoan. Hiru logela, kalefakzioa eta igogailuarekin. ☎659 963960.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

LESKA. Apartamentu mobleztatua errentan emateko. Gehienez bilagunendako. Denbora luze-
zako errentan eman nahi da. ☎675 714360.

LESKA. Bittiria karrikan pisua errentan emateko, Aliproxen gainean, 3. solairuan. Dena mobleztatua eta gela guztiak kanpoaldera. ☎686 378154.

ELGORRIAGA. Etxebizitza errentan emateko. Inguruko jendearentzako. ☎630 822018.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

MALERREKAN edo BORTZIRIETAN. Baserria errentan hartuko nuke. ☎672 185168.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESKA. 20 m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

LESKA. 90 m²ko bajera errentan emateko edo salgai. ☎948 637050 (deitu 08:00etatik 15:00etara).

BERA. 170 m²ko bajera eta 50 m²ko lurra salgai. Alzate 15. ☎607 978656.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

LESKA. Albistur karrikan lurrazpiko bajera indibidual itxia errentan emateko. ☎618 962937.

IGANTZI. Lokal komertziala errentan edo traspasoa emateko. Estetika zentzurako edo ilea-paindegirako aproposa. ☎663 881813.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

LESKA. Nabaz auzoan 2.500 m²ko terrenoa salgai. Ura eta argia gertu. Bista politik eta espla-

nada haundiarekin. terreno_lesaka@hotmail.com

DONEZTEBE. 2 partzela eraikigarriak salgai, 2 etxe egiteko. ☎607 978656.

LANA
eskariak

BORTZIRIAK. 38 urteko emakume arduratsua eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Aditua eta ari-
tua. Ordugegiak ez du in-
porta. ☎671 122776.

Emakume langile bat lan bila dabil. ☎948 630247.

Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke. ☎948 630247.

MOTORRAK
salgai

Jeep Grand Cherokee CRD salgai. 163 CV, Mercedes motorra, 4 urtekoa eta gasoila. ☎607 978656.

Scania markako **traile-rra** salgai. Konpletua, baskulantearekin prestatua. Trailerrak 12 urte ditu baina motor berria du (60.000 km). Mutur luzea eta 530 CV. ☎600 901058.

Kawasaki K.L.E. 500 salgai, 2007ko ekaikoa. Extrak. Egoera onean. 3.500 euro. ☎619 889723/ yeti2424@hotmail.com (Carlos-Irun).

Yamaha WR 250 R salgai, 2008ko apirilkoa. 3.990 euro. Ekipoa opari. ☎619 889723 yeti2424@hotmail.com (Carlos-Irun).

Seat Marbella salgai, gasolina. SS-AT matrikula. 74.000 kilometro. 900 euro. ☎680 983557.

ANIMALIAK
oparitzeko

Zakurkumeak oparitzeko. Aita ehiztari ona. ☎679 892622.



Artzain zakur aleman zakurkumeak oparitzeko. Txertatuak eta mikrotxiparekin. ☎948 450042.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(urtarrilaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 47,00 € (+4,00)

Zerri gizena
1,006 € kilo. (+0,001)

Zerramak:
0,360€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,92 (=)

1.koa 3,62 (=)

2.koa 3,02 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,02 (=)

1.koa 3,72 (=)

2.koa 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberrak: 2,70/2,80
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,10/5,90
8-10 kilokoak: 3,90/4,30

SANTESTEBAN Tailerrak

TRAFFIC 1.9 DCI 115CV
5 plaza - 2537km - 44.000 km

MEGANE GRAND TOUR EMOTION
1.5 DCI 115 CV 2007km - 37.000 km

MEGANE II DYNAMIQUE
1.5 DCI 115CV 2007km - 42.000 km

SCENIC II DYNAMIQUE
1.5 DCI 115 CV 2007km - 30.000 km

DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK

DENETARIK
Salerosketak

Rapid segadora diesel salgai, egoera onean.
☎948 450060.

ELIZONDO. Ehiza zakurantzako karroa salgai.
☎627 400520/ 948 581473.

Belar idorren boloak eta lastoa salgai. ☎690 776147.

Ferrol gasolio berogailua salgai. Bi pisu berotzeko aproposa, batean bakarrik erabilia. ☎618 962777.



MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesel)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

DENETARIK
galdu-aurkituak

LESAKA. Urtezahar gauean sakeleko telefonoa galdu zen. Beltza, Sony Ericsson 705. Lanerako beharrezkoa. ☎667 897260.

HARREMANAK
Agurrak

Irungo **39 urteko mutil** batek -erakargarria, langilea, zintzoa eta mendia, eskia eta motorrak gustuko dituena-, antzeko neska bat ezagutuko luke. Laguntasuna eta sortzen dena. yeti2424@hotmail.com. ☎619 889723.

Bidali
ttipi-ttapa
heretik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

(0034)948 63 54 58

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€
Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu.
3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



MANEX BEGIRISTAIN ALTUNAK urtea beteko du otsailaren 15ean. Zorionak eta muxu handi bat, ataxi-amaxi eta osabaren partetik.



AMAIA ALTZUGAREN MITXELENA beratarrak urtarrilaren 19an 16 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez zure lagun Ane eta Saioaren partetik!



INIGO ETXEGARAI ALDABE beratarrak 12 urte egin ditu urtarrilaren 20an. Zorionak familia guztiaren partetik. Aupa Bartzelona!



Arraitzko **LOREA LARRAINZAR GORTARIK** urtea bete du urtarrilaren 22an. Zorionak aitaxo eta amabaxoren partetik. Muxu bat gure haur politarentzat!



Sunbillako **BITTORI IBARRA AGESTAK** urtarrilaren 16an 83 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren eta bereziki bere biloba tikiak diren Garaine eta Iraideren partetik. Mila muxu.



OIHAN LUJANBIO SANCHEZEK 4 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



OIHAN LUJANBIO SANCHEZEK 4 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat zure ama eta zure lehengusina Edurneren partetik. Aupa rojillo!



IZARO LARRALDE IBARRA beratarrak urtarrilaren 26an 8 urte bete ditu. Zorionak etxeokoen partetik.



Zorionak **OIERRI** otsailaren 3an 9 urte bete dituelako. Muxu erraldoi bat Burne aldearen partetik.



EKHI EZKURRA SANZ sunbildarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu pila Leitzako familiaren eta bereziki Kiararen partetik.



Leitzako **XUBAN XUBANE** 2 urte bete ditu urtarrilaren 25ean. Urte askoz eta etxeokoen partetik muxu handi bat berrixu!!!



Leitzako **IERA** eta **SAIOAK** urtarrilaren 7an urtea bete dute. Urte askoz familiaren eta bereziki Xubane partetik. Muxu handi bat bio!



UNAX BERAU IRIGOIEN lesakarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 10ean. Muxu handi bat etxeko motoristarentzat Lesakako familiaren partetik.



Lesakako **UNAX BERAU IRIGOIEN** 2 urte eginen ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxu potolo bat Iturengo familiaren partetik.




Aunitz urtez **UNAX!** Dagoeneko otsailaren 10ean 2 urte eginen dituzula! Muxu handi bat Aloña eta Iraieren partetik.




Leitzako **MARITXU BALEZTENA** eta **IRAIA MARTINIKORENAK** otsailaren 12an eta 6an urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu handi bat Aurtzoko familiaren partetik, eta bereziki Ekiñeren partetik. Berendu goxo-goxoa prestatu!



Sunbillako **LEYREK** urtarrilaren 31n urteak bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat zure lagun partetik.



Aunitz urtez potxola! Ailegatu da zure eguna! Hagitz ongi pasa eta ea tragoxka batera gonbidatzen gaituzun. Muxu handi bat! Kaxkarrak.



Igantziako **SARAI BURGETE MIGELENAK** otsailaren 7an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat aitaxo, eta bereziki Vane-narren partetik.



Zorionak Lesakako **XABERII!** Otsailaren 19an 2 urte beteko ditu. Muxu handi bat Lesakako familiaren eta bereziki Vane-narren partetik.

KRISI-KONTRAKOGAUA

OTSAILAK
6
LAGUNBATA

LURDJOTAK:
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

INAUTERIAK +OPARIAK

OTSAILAK
13
LAGUNBATA

LURDJOTAK:
DJNASH

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

BERRI TXARRAK

OTSAILAK
20
LAGUNBATA

LURDJOTAK:
DJNASH
DJJULEN

00:00 12€ Aurretik 15€ Takilan
Salmenta puntuak: Elizondo: Antxitonea, Txokoto | Lesaka: Atxaspi | Iruña: El Infiernito

KRISI-KONTRAKOGAUA

OTSAILAK
27
LAGUNBATA

LURDJOTAK:
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

LAISTER...

KENZAZPI MARTZAK **20**
LAGUNBATA

KAOTIKO APRILAK **10**
LAGUNBATA



Lur

WWW.LURELIZONDO.COM



**TANTIRUMAIRU
IKASTOLA**

**Matrikulazio epea:
otsailaren 5etik 12ra**



www.nafarroakoikastolak.net/bera
Tel. 948 637308

LABIAGA IKASTOLA

MARIKULAZIOA

Otsailaren 5 etik 12 ra



URTEARRA
TEKNIKAK

OSORU
SARFIDU
GINTZAK

ENGLISH
PROJECT
WEEKEND

TEKNOLOGIA
BERRIAK

GOIZ
TRAKOAK

LO KULUTZA

YAKITZE

BERRI

ERABERTE

Altzate, 8 - BERA
T. 948 630 172 - 948 631 558
www.nafarroakoikastolak.net/bera



SAN FRANCISCO JAVIER



Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa

Elizondo. Tel/Faxa: 948 581808
e-posta: cpelizon@pnite.cfnavarra.es

Otsailaren Setik 12ra

Eskola publikoa aurrerantz !

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuak



BORTZIRIETAN

Irakaskuntza publikoa



Igantzi: Herri eskola
Tel. 948 637 829



Arantza: Herri eskola
Tel. 948 634 104



Bera: Ricardo Baroja E.P.
Tel. 948 625 019



Etxalar: Landagain E.P.
Tel. 948 635 215



TOKI ONA Institutua
Tel. 948 625 000



Lesaka: Irain E.P.
Tel. 948 638 006

**Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
Doan - Integratzailea
Jantoki eta garraio zerbitzuarekin
Teknologi berriez baliatuta
Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
DBH, Batxilergoak eta LH. bertako institutuan**

TXIKIAK HEZIZ HANDITU

**Haur eta Lehen Hezkuntza otsailaren 5etik 12ra
DBH, Batxilergo eta LH martxoaren 2tik 9ra**